



ARGIA

Euskaraz bizitzeko eguna Ziburun

BADATOR EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

26-31. orriak



2.780 | 2022 / 05 / 29 | 4,00 €



"Poesiak hizkuntza bera jartzen du zalantzan"

16 | IOSUNE DE GOÑI



'Faith': nola kontatu jazarpenaren barrunbeak

42 | LANDER GARRO



Zer egin indarkeria matxista erabili duten pertsonekin?



Sendabelarrek dakitena

EZAGUTU, BILDU ETA ERABILI
Garbiñe Larrea

Solasaldiak

Maiatzak 24 18:30 / Bergara

Liburu aurkezpena

Ekainak 04 10:00 / Aizarnazabal

Sendabelarren tailer praktiko-teorikoa

Ekainak 04 17:15 / Ziburu

Liburu aurkezpena

Ekainak 05 11:00 / Irun

Sendabelarrak eta permakultura hitzaldia

Zure herrian hitzaldia antolatu nahi?

Idatzi solasaldiak@argia.eus helbidera

eta berehala erantzungo dugu.



Liburua eskuratzeko:

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 21 | KARMELO LANDA
- 22 | SONIA GONZÁLEZ
- 23 | KOLDO ALDALUR
- 23 | ITXARO BORDA
- 24 | RUBEN SÁNCHEZ

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: OLATZ ARAMENDI
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


12 | **ZERGATIK DAGO GERO ETA KUKU GUTXIAGO?**

Pello Zubiriak galdera horren erantzunak aztertu ditu aste honetako Net Hurbil atalean. Eta baita ere zer egin dezakegun, gure ingurunea kukuarentzat eta honek jaten dituen intsektuentzat eta bere kumeak hazten dituzten beste txorietzat bizigarriagoa izan dadin.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | IOSUNE DE GOÑI

“Idazteko gauzarik ederrenetakoa da idazle gazteok sortzen dugun harreman sarea”

Reyes Ilintxeta Sarriugarte

26 | ZIBURUKO LIBURU ETA DISKO AZOKA

Egun bat Euskararen errepublikan

Estitxu Eizagirre

32 | KOLONBIA | A. PINZÓN - A. UGALDE

Tamalez, askotan errazagoa da gerra egitea

Xuban Zubiria

36 | HEZKUNTZA

Liburu bat katean idatzia

Jone Gartzia

42 | KULTURA | LANDER GARRO

“Nire literaturan bada etengabeko borroka bat terroristaren figura desmuntatzeko”

Gorka Bereziartua

46 | KULTURA

Pentsatzeko leku bat

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



Posea

Ukrainako gerrako preso batzuen larruetan Hitlerren aipuak, gamma-gurutzeak edo runa faxistak ikusteak ez du oso leku onean utzi Azovstaleko "erresistentzia heroikoa". Setioaren lau asteotan ia zuzenean bizi izan dugu talde paramiliar neonazi baten zuriketa. Han gertatzen ari zenaren berri emateko iturri nagusi gisa ere erabili izan du Mendebaldeko propaganda-makinariak. Berbarako, argazki hau bera: Azovetik AP agentziara. Bien bitartean, militarismoak aurrera darrai. Mendebaldearen arma eta finantzaketa fluxu etengabeak elikatzen jarraitzen du Ukrainako "gerra, amaierara arte" jarrera, eta Errusiak Ukraina hego-ekialdeko okupazio militarari eusten dio. Hasieratik saihestu behar zen gerra luzatuko duten jarrerak dira. Heriotza, suntsiketa eta errefuxiatu gehiago sortzeko bakarrik baliagarria den guda.



“Euskarak ez du aurrera egingen, eraman egin behar da”

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Gazte belaunaldi berria batu da euskararen aldeko borrokara, eta manifestazio koloretsua egin dute larunbatean Donostian, *Euskara Aurrera* lelopean. Mobilizazioa bera antolatzea izan da Gazte Euskaltzaileen Sarea (GES) eragile sortu berriaren lehen erronka, eta urduritasuna nabari zen sustatzaileen artean Antiguako, manifestazioaren aurretik. Euskalgintzako eta eragile nagusien babesarekin –ARGIarena barne–, Boulebarderako bidea egin dute bertaratu diren euskaltzaleek.

Antiguako tuneletik 3.000 lagun atera dira, ARGIAk kontatu duenez eta ibilbidean herri mugimendu eta eragileek egiten dituzten aldarrak nagusiek presentzia izan dute: azterketak euskaraz, Nafarroako zonifikazioari ez, pantailak euskaraz, ETBn fikzioa euskaraz, Espainia eta Frantziako estatuen inposizioa eta Euskal Herriaren burujabetza falta...

Irantzu Idoateren bertsoekin hasi da amaierako ekitaldia. Bertatik hartuta artikulu honen izenburura eraman dugun esaldia. Honen ondoren, AEKren izenean Aize Otañok eta GESeko Begoña

Garaikoetxeak hartu dute hitza. Bi ideia nagusi azpimarratu dituzte: batetik, herritarren aktibazioa ezinbesteko zutabe dela hizkuntzaren normalizazioa lortzeko, eta besteren artean, hori gazteen artean lantzeko sortu dutela GES –txalo zaparrada handiena une honetan eragin dute–. Bestetik, nabarmendu dute, herri ekimenaz gain, egiturazko aldaketak egin behar dituztela instituzio publikoek.

Herri aktibazioaz gain, erakunde publikoei exijitu dizkiete hizkuntza politika egokiak

"Egungo garaietara egokitutako hizkuntza politika berriak pentsatu eta martxan jartzeko" eskatu dute, eta hori ez egitea, justizia eta demokrazia eskaerei ez entzutea litzatekeela adierazi dute. Gogorarazi dute euskararen biziberritzea ez dela norbanakoen auzi indibiduala, erronka kolektiboa baizik. Admi-

nistrazio publikoei aurpegiatu diete ardura berezia dutela.

Euskarak dituen erronka zenbait ere zerrendatu dituzte amaieran: belaunaldi berriak osorik euskalduntzea, euskaraz eroso bizi ahal izateko eremuak sortzea, pantailetan euskara areagotzea, euskara harrera hizkuntza izatea, euskara kohe-sio sozialerako hizkuntza bilakatzea, edo euskara ikastea "behingoz" doakoa eta unibertsala izatea.

Aurretik ere zaugarri zen hizkuntza bereziki kolpatu du pandemiak, salatu dutenez, eta gainera, azken aldiari euskararen normalizazioaren bideak kolpe ugari jaso dituela, hala nola, Ipar euskal Herrian murgiltze eredu kolokan jarri izanak, Nafarroan hizkuntza eskubideetan egin den atzerakadak edo epaitegie-tatik iritsi azken erabaki euskarafoboe-k. "Euskararen lurralde osoko gobernu-ek exijitzen diegu berandu baino lehen euskalgintzarekin eta herritarrekin batera egungo erronka eta beharrei erantzun-go dieten hizkuntza politiken inguruan eztabaidatu eta neurriak har ditzaten", adierazi dute. ●



Askatasunaren hiribidea alderik alde bete dute.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Basoratzea



ARITZ GALARRAGA

Modu zinez bitxi batez bukatzen du liburua Alice Zeniterrek: esplikatu, zer eginik ez dagoela uste duen garaian, are idazteko gorputzik ez duenetan, beti dagoela azkenik une bat, zeinean berriz esaten dion bere buruari gauzak egin daitezkeela, egin egin behar direla, eta, hemen bitxi-ena, “eskuarki une horretantxe sartzen zait basoan paseatzera joateko gogo”. Lehen irakurraldian ez zidan atentziorik eman, begia beste gauza batzuetara, baina berehala ohartu nintzen basoari egindako erreferentzia hori, harago ez zihoana, lerratzen zela basoari erreferentzia egin izan dioten beste hainbat idazlerekin –oroi Le Guin bera, eta *Oihan hitzean mundua*–. Miguel Sánchez-Ostiz maitearekin, adibidez, maiz aritu izan baita bakardade, bakartze, basoratzeari buruz, luze gabe, berriki argitaratu duen *Emboscaduras y resistencias* lanean.

Ibilaldiak egitea atsegin du, inguruetakoko basoetan, “garbi baino zikinagoak”; bertako haritzak, amerikarrak, pago kalakari, alertze sotil, gaztainondo gaztigatuak: “Nik horri esaten nion buelta bat ematea, baina antza denez zera japoniar bat da, eta deitu behar zaio baso-bainua”. Zergatik basoratu, baina? Harra-paringandik defendatzeko, unea iritsita zeure buruagandik, bilatzen baituzu basoaren sakontasuna, ibiltzen baituzu galdu nahian, edo galdutzat eman zaitzaten, baina salbu, zerengandik salbu, zeure buruagandik. Ez dago, ordea, hori ezkutatzeko bezain baso trinko, itxi, sarririk. “Nire basoratzea”, dio Sánchez-Ostizek, “betekada, txotxongilo sentimendu, garai koipeztu baten ondorio da”. Nahiz jakin, benetan basoratzea, benetan bazterratzea –eta ez orain mundu guztiak aldarrikatzen duen bazter zentriko hori–, Thoreauk egin bezala Walden mitiko hartan, fantasia bat dela beste ezer bainoago.

Basoa, beraz, aspaldi gordeleku, gero beldurgune, gaur egunean orotariko aisitoki –trekking, quad, mountain bike–, Senekaren harekin geratuko nintzateke: arrastorik ez utzi, saiatu ezabatzen, ezkutatzean egiten duten bezala basoko animaliek. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com


Abortua

Espainiako Abortuaren Lege erreformaren zirriborroa onartu dute. Hileko mingarriagatik emakumeek hiru eguneko gaixo-agiria eduki ahaliko dute eta 16 urtetik gorako andreak ez dute gurasoen baimenik beharko abortatzeko. Hilekoaren produktuei BEZa jaistea, baina, ez du jaso azkenean erreformak.

Bretoiera

Ar Redadeg abiatu dute, “Bretainiako Korrika”. Maiatzaren 20an hasita, 2.022 kilometro egingo dituzte, Gwitreg herritik Gwened herriraino. 2008an sortua, bretoiera sustatzea eta horretarako dirua biltzea ditu helburu. Oarsoaldeako AEK-k antolatuta, ordezkari bat joango da hara atxikimendua ematera.

Literatura

Maiatzaren 27tik 29ra izango da aurtengo Literatura. Askotariko ikuskizunak eta mahai-inguruak egingo dituzte Zarauzko euskal letren plazan. Aurten, “Piztia” hautatu dute ekimenaren gai gisa, eta hortik tiraka idatzitako manifestua irakurriko du Ana Malagonek, asteburu literarioari hasiera emanez.

EKONOMIA

Errealitatea hilekoa baino mingarriagoa denean



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

El absentismo laboral es, en la actualidad, una de las principales lacras que tienen que soportar las empresas en nuestro país". Patronalaren hitzak dira, enpresetan absentismoa kudeatzeko gida batetik ateratakoak, enpresak jasan behar duen "lakraz" kezkatuta. Ez dute ezer esan azken egunetan eztabaidagai nagusietakoa izan den lan eskubide berria dela eta. Esanguratsua da, oso.

Agian gaia aztertzeke denbora behar dute. Edo izan liteke lege hori guztien begietara oztopatzeko beharrik ez izatea, badakitelako euren esku dagoela aitortza formalak lan munduan eskubide erreala bilakatzea. Ahalmen hori ematen die lan legeriak eta gobernuen baldintzarik gabeko babes politikoak. Izan zuten aukera hori aldatzeko, mugatzeko sikiera, baina ez zuten horrelakorik egin lan erreformaren erreforman.

Sexuaren araberako lan banaketak, etxean egiten diren zaintzei lan izaera ukatzea, merkatuan egiten direnei benetako balioa ez aitortzea; edota lan osasunerako eskubidea lanbide feminizatuen eta emakumeen arabera aztertzeke aukerarik ez ematea... egiturazko arauak dira. Idatzi gabeko arau erreala, kapitala ez dagoelako hau guztia aldatzeak emakumei ekarriko litzkeen eskubide ekonomiko eta laboralen kostua onartzeko prest.

Irene Montero Espainiako Gobernuako ministroak esan zuen bukatu dela "hilekoaren minez arrastaka lanera joatea". Zaila egiten zaitzuten bizkarreko minez okerturik lanera doan zaintzaileak, edota lanbidearen ondoriozko eskumuturreko gaitzak eragiten dizkion minak baretzeko pilulaz gainezka lanera doan garbitzaileak, horrela izango dela sinetsiko duenik. ●

ANALISIA



Sexu zikina

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Gizonen arteko sexu harremanak praktika ilun, kontrolgabe eta arriskutsuekin lotu ditu gure iruditeria kolektiboak, ez alferrik urtetan elikaturiko estigma izan da maritxuen sexualitatea, gizon askok barneratzeraino norbere desira zerbait zikina, erdeinagarria eta lotsatzeko modukoa dela. Iruditeria horri bazka ematen jarraitzen dugula erakutsi dute Bilbon berriki izandako hilketek.

Iruditeria kolektiboan hedabideek duten pisua handia da, eta Bilbon aplikazio bidez hainbat gayrekin hitzordua egin eta hil egin dituen gizonaren kontakizunean, komunikabide batzuek afera baliatu dute morboan sakontzeko, kasik iradokiz sexu grinak eta harremanak egiteko modu horrek eraman dituela biktimak heriotzera. "Ezezagun batekin sexu harremanak izateagatik" halakoak gertatzen direla irakurri diogu bati baino gehiagori sare sozialetan, berriz ere harreman homosexualak arriskuarekin (drogekin, deprabazioarekin...) lotuz -hiesarekin hala egin zuten eta orain ere tximino-baztanga birusa sexu praktika gayekin lotu du hainbat hedabidek arduragabeki, harreman homosexualen gainean arriskuaren zama pisutsua erreproduzitzen. Noiz uzten dio baina ezezagun batek ezezagun izateari, harekin sexu harremanak eduki ahal izateko? Bilboko kasuan ligatzeko aplikazioak izan dira eztabaida-iturri, baina cruisinga kritikatzan denean bezalatsu, inplizituki harreman homosexualak epaitzea eta homofobia hauspotzea izan da jomuga, harreman heteroetan denetik ez balego bezala.

Halako aplikazioak gauza ederra dira gainera, etxeko sofatik ligatzeko, inguru heteronormatibotik ihes egiteko, armairuan jarraitzen duenak alternatiba bat izateko, esperimentatzeko... Zenbaitek sexua soilik ulertzen duela ezkutuan eraman beharreko kondena gisa? Batzuentzat sufrimendutik eta erruduntasun eta lotsa sentimenduetatik gehiago dutela hitzordu klandestinoek, gozamenetik baino? Harreman mingarria dutela euren sexualitatearekiko? Jakina halakorik badela, jakina estigma barneratua duen jendea dagoela, baina praktika homosexualak epaitzen, moralizatzen eta sexua erromantizatzen aritzeak ez die ezertan laguntzen. Gozamen iturri diren sexu praktika oro naturalizatzeak izan behar luke bidea, gure sexualitateak eta sexu praktikak modu askeagoan eta osasuntsuagoan bizi ditzagun. ●

Al Jazeera eta bestelako tokiko hedabideek adierazi dutenez, Israelgo armadak ez du Shireen Abu Akleh kazetariaren hilketatik ikertuko, "polemika eragin lezakeelako".

Bide berri bati ekin dio Seaskak baxoa frogaren ahozko azterketa euskaraz egin ahal izan dezaten ikasleek: auzitegi administratiboan helegitea jarriko du lehen aldiz.

Ikus-entzunezkoen Espainiako legea onartzeko prozedura azken txanpan dela eta "gure hizkuntzaren presentzia duina bermatzeko" legeak hainbat puntu jaso beharko lituzkeela gogoratu dute euskalgintzaren bueltako hainbat eragilek.

PuntuEus domeinuak hamar urte bete ditu. Fundazioak 92 domeinurekin abiatu zuen ibilbidea. 13.000 baino gehiago ditu gaur egun.

Hiru urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko hilerko 200 euroko dirulaguntza eskainiko du Jaurlearitzak.

Damien Abad, Elkartasun, Autonomia eta Pertsona Minusbaliatuen Frantziako ministro berriak bortxatu egin zituela salatuko dute bi emakumek.

"DONOSTIAN BASQUE CULINARY CENTER UNIBERTSITATE PRIBATUA INSTALATZEKO DIRU PUBLIKOKO 26 MILIOI ETA 5.500 METRO KOADROKO LURSAILA EMATEA LOTSAGARRIA DA"

ALOKAIRU BENTA BERRI, KALERATZEAK STOP, INQUILINOS AZORA

Mondragon Unibertsitatearen "proiektu elitista" geratzeko sinadura bilketa abiatu dute hiru plataformek.

2021-05-17

"Ez izan erasotzailearen konplize, erantzun dezagun kolektiboki erasoaren aurrean"

Donostiako Ondarreta hondartzan itsasotik atera eta komentarioak, begiradak, argazkiak, askotariko irainak eta mehatxuak jasan behar izan dituen emakume talde batek. "Horrelako biolentzia" salatuzko protesta egin dute.

2022-05-17



TEKNOLOGIA

Hirugarren sektorearen ahotsa



DIANA FRANCO

Azkenaldian hirugarren sektorearen eraldaketa digitalaz hitz egiten duten dokumentu ugari igaro dira nire eskuetatik. Agiri horietako zenbait, hirugarren sektorearekin zerikusia ez duten erakunde teknologikoak bultzaturikoak dira. Baina duela gutxi eraldaketa digitalaren inguruan hirugarren sektoreko zenbait eragilek landuriko topaketa xume bitan parte hartu nuen eta horietan bai, hirugarren sektoreak bazuen ahotsa. Ahots kritiko eta propositiboa entzun ahal izan nuen.

Heldu berria naiz sektore honetara eta asko dut ikasteko, baina azkar ohartu naiz digitalizazioan sektore honetako eragile askoren jarrera erabiltzaile hutsarena dela. Teknologian, aldaketetara egokitzeko bidea jarraitzen dute orokorrean, aldaketa teknologikoari forma emateko bidea hartu ordez. Azken finean, ardura larregi dituzte egunerokoan, euren tresnak pentsatzeko indarra eta baliabideak bideratzeko. Topaketa hauetan, baina, ezberdintasun bat ikusi nuen: erabiltzen duten tresna askori giza begirada falta zaiela adierazi zuten. Zer da ordea giza begirada? Zelan interpretatu dezakegu hori?

Nire ustez, eraldaketa digitalak giza begirada izango du baldin eta bazterkeria modu berriak sortzen ez baditu eta baliabideen ekologia egiten badu. Horretarako, beharrezkoa da arreta berezia jartzea garapen teknologiko hauek sustatzen dituzten negozio ereduetan, azpiegitura teknologikoak kalte ala onura diren naturarentzat eta herrirentzat, gailuen iraunkortasunean eta horiek konpontzeko eta hobetzeko aukeretan, komunitatearentzat zenbateraino den aberastasun teknologia hori, eta azkenik, baina beharbada garrantzitsuen, teknologia pentsatu eta egitean aniztasuna kontuan hartzen al den.

Topaketa hauetan paradigma aldaketa bat igarri dut; sektorea ahotsa hartzen ikusi dut, eraldaketa digitalari forma emateko bidea antzeman da. Teknologiak gizartean duen eragina hain handia izanda, nola ez du hirugarren sektoreak teknologian eta eraldaketa digitalean ahotsa izango? ●

NAZIOARTEA



PABLO PORCUNCUA / AFP

Non dira?

AXIER LOPEZ

Uruguaiko diktadura zibiko-militarrean (1973-1985) desagertutako 197 lagunak kalera atera zituzten milaka lagunek beste hainbeste argazkitan, 27. Isiltasunaren Martxan.

Lehen martxa 1996an egin zuten. Uruguaiako Estatuaren ekinga terroristak 20 urte bete zituenean. Maiatzaren 20ak gogorarazten du Buenos Airesen Manuel Liberoffen desagertpena, Zelmar Michelini, Hector Gutiérrez Ruiz, William Whitelaw eta Rosario Barredoren hilketak eta aitona handik hilabetera berreskuratu zituen hiru seme-alaba txikien bahiketa. Dena Kondor Planaren barruan antolatu zuen estatuak: 1970eko eta 1980ko hamarkaden artean inguruko herrialdeen inteligentzia militarren arteko koordinazio errepresiboa. Garai hartan Uruguain Juan Maria Bordaberry Arozena zen presidentea, Nafarroa Behereko migratzaile artzainen ondorengoa, 1973an ganberak desegin ondoren 1985era arte hedatuko zen diktadura zibiko-militarra ezarri zuena.

Desagertuen Amak eta Senideak taldeko kideek adierazi dutenez, Indar Armateuek bahituta mantentzen dituzten gure desagertuen argazkiak gizarte osoak sufritutakoaren sinbolo dira, autoritarismorik latzenak zapaldukoak. Estatuak erabaki eta burutu zituen krimen horiek, eta gaur arte ezkutuan eduki ditu, bik-

timak beste behin ere biktima bihurtuz.

Martxaren bidez eskatu dute estatuak aintzat har ditzan, desagertuen gorpuak entregatzeko eta egiari buruzko informazioa duten artxibo klasifikatuak entregatzeko. Era berean, "memoria kolektiboa berriro gezur-rekin zauritu eta distraitu nahi dutenei emandako erantzuna" izan da. Zehazki, Kabildo Irekia aipatu dute, militarrek sustatutako alderdia, Uruguai gobernatzen duen eskuineko koalizioaren bazkide dena. Alderdi horrek, lehenik eta behin, iraungitzelegea erabat berrezarri nahi izan zuen, diktadura garaiko militarrek eta polizia epaitzea galarazi zuen araudia. Halaber, lege-proiektu baten bidez, 65 urtetik gorako preso guztiei etxeko espetxealdia automatikoki ematen saiatu dira, baldintza jakin batzuk beteta. Diktaturaren errepresioileak lirake ia onuradun bakarrak.

"Zertarako ditugu Indar Armateuak hiru milioi biztanleko herrialde batean? Ez dugu ofizial, koronel eta teniente jeneral kopuru hori guztia behar", adierazi du Elena Zaffaronik, Luis Eduardo González González *Chiqui* Alderdi Komunista Iraultzaileko militantearen emazteak. Atxilotu ziztuztenean, lau hilabeteko semeaz haurdun zegoen, azkenean gatibutzan jaio zena, *Chiqui* desagertuta zegoela.


Egiak oraindik ere gatibu jarraitzen du Uruguain. ●

Europaren militarizazioa

Gastu militarra (milioitan)

Armak esportatzen dituztenen rankingean, herrialde bakoitza zein postutan dagoen (SIPRI)

Arma industriako 100 enpresa nagusien artean dauden konpainien kopurua.



Delàs zentroak eta beste hainbat erakundek babestuta, 2022ko apirila eta maiatza artean bultzatu duten Gastu Militarrean Eragiteko Egunak (GDAMS) kanpainaren baitan argitaratutako infografia.

KUKUAK HUTS EGIN DIGU AURTEN: EZIN OTE DUGU EZER EGIN HAREN KANTA BERRESKURATZEKO?

“Kukuak kantatzen du maiatzean ku-ku” ikasi genuen kantatzen umetan, baina maiatzetik maiatzera bakanduz datoz hegazti horren hotsak. Ornitologoek gero eta gehiago argitzen dizkigute txori migratzaile mitikoaren sekretuak, baina aldi berean gizarte industrializatuok zerbait ari gara oker egiten hegaztia suntsitze bidean jartzeko. Erne kukuari, gure biodibertsitatearen kalitatea markatzen duen termometro bikainari.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Kazetariaren anekdotatxoak: lagun batek diost azken urteotan apiril-maiatz oro Gipuzkoako Goierriko paraje jakin batean entzun ohi zuela lehenbizikoz kukuak... baina 2022 honetan haren arrastorik ez duela. Zorionez oraindik kuku gehiago agertzen da Goierri baina... zerbait salatu ote digu urteroko hitzordua huts egin digunak? Non, nola, zergatik galdu ote da?

Goierri galdu duen kukuak baino zorte hobea izan du, antza, Ingalaterrako Suffolk eskualdean *PJ* bataiatu dutenak: zazpigarren urtez segidan itzuli da *PJ* Afrikako tropikoetatik Ingalaterraraino, Britainia Handiko Ornitologia Elkarteak (British Trust for Ornithology, BTO) maiatz hasieran zabaldu duenez. 2016an harrapatu eta satelitez kontrolatzeko gailu txiker bat ezarri zioten.

Geroztik ia etengabe eduki dute lokalizatua, eta horregatik dakite zazpigarrenez bere arrautzak Ingalaterran jartzera itzuli den *PJ*-k urte horietan 96.000 kilometro egin dituela hegan, Suffolketik Kongora joan eta etorri. Europako kukuaren joan-etorriak bezala, ikertzen ari dira Asiakoarenak; honek ere negua Afrika tropikalean ematen du, udaberri usainarekin bidai ia amaiezina abiatzeko Mongolia, Txina edo Siberiaraino.

BTO elkarteak, oharturik kukuak ia %40 urritu direla Ingalaterran azken hiru hamarkadotan, 2011n ekin zion hegazti horren bizimodua zehatzago ezagutzeko ikerketa zabalari. Hasi zen kukuak harrapatu, markatu eta satelitez behatzeko gailuz hornitzen, horien urte osoko bizimoduaren eta batik bat Kongorainoko urteroko migrazioaren xehetasunak ezagutu nahian. Kukuak ha-

ren arrabotsen grabazioekin erakarrira sarean –Pirinioetan usoak atzematen dituzten gisan– nola harrapatzen duten erakusten du BTOren bideo harrigarri batek. Behaketa horrek baimendu die, esaterako, ohartzea migrazio bide batzuek txorioi hilgarriago zaizkiela besteak baino.

Aurtengoan, *PJ* Kongo ibarretik –Kongo eta Gabon arteko muga aldeetik– otsail bukaera aldean abiatu omen zen, hortik Ghana eta Boli Kostara joz lehen jautsian. Hemen aste batzuetan ondo bazkatu eta apirilaren 4an ekin zion Sahara gelditu barik zeharkatzeari. Egun gutxiren buruan Iberiar Penintsulara iritsia zen eta apirilaren 24an Suffolkeko bere sorterreri eta bigarren egoitzaraino. BTOko zientzialariek aitortu diete kazetariei bihotza ahoko zuloan zeukatela beren kukuak bidai ha-



BTO

SATELITEEK JARRAITURIKO KUKUA

'Britainia Handian BTO elkarteak satelitez jarraitzen dituen kukuetak bat, emisorea jarri ostean askatzeko zain.

rrigarrian sentitzen zuten bitartean, edozein ezustekogatik bidean betiko galdu zitekeelako beldurrez.

Orain bertan hamabi kukuri ari zaizkio jarraipena egiten BTOtik. Horietatik zazpiren seinaleak hartzen jarraitzen dute, lau galduta dauzkate –berriz aurkitzeko itxaropenez– eta azken bat uste dute hila izan daitekeela. Euskal Herrian kuku helduek 8-12 asteko egonaldia egiten duten bezala, Ingalaterran 6-8 astez egon ohi dira, beranduago heldu eta goizago partitzera behartuta Kongo eta Angolako parajeetarantz. Eta hain zuzen, migrazio bide ezberdinek horien hilkortasunean eragina dutela uste dute ikertzaileek.

Europako kukuek, hasi Eskoziaraino iristen direnek eta berdin Bielorrusian amaitzen dutenek, uda amaieran Mediterraneo zeharkatzen dute batzuek

Kukuak arrautzak txori txikien habietan lagatzen ditu; txoriok asko urritu direnez, kukuek askoz kume gutxiago ateratzen dituzte

mendebaldetik –Pirinioetatik Espainia eta Portugalen barrena– eta besteek Balkan mendiak eta Italian zeharkatuz. Saharako basamortuari ekin aurretik,

hor ahalegintzen dira eta indarrak biltzen. Ikerketak erakutsi duenez, gure inguruok arriskutsuagoak dira kukuarentzako Italia aldekoak baino, Iberiako bidean askoz hilkortasun tasa handiagoa nozitzen dute. Oso nabarmena da, zeren eta bidaiaren iraupenari dagokionez, Atlantiko aldeko bidea dezentez motzagoa zaie Balkanak eta Italiakoa baino.

Negu amaieran, aldiz, Kongo aldetik Europarako bidaiak nagusiki Atlantiko aldetik egiten dutela dirudi –biderik arriskutsuenetik hain zuzen–. Hor galtzen dira gure kukuetak asko, Marokon edo Espainian atsedean hartzeko zeuzkaten lekuak orain hormigoiak estalita daudelako edo nekazaritza industrialak pestizidekin kukuaren jakiak diren beldarrak desagerrarazi dituelako.

Kukuak jateko maite ditu beldarrak; hauek eguneko bezala gaueko tximeleten bigarren aurpegia dira, tximeleta eta beldarra xomorro bera dira bizitzako bi fasetan. Tximeleton galera aipatzen dute adituek hegaztiaren urritzearen kausa nagusien artean. Nekazaritzan, baratze amateurretan eta baita basogintzan ere erruz erabiltzen diren intsektizidek eragin dute beldarren desagertzea. Tximeleta eta beldarren urritzea lotuta dago ere landaredian biodibertsitatea galtzarekin, bai elikagai dituzten lore eta landareak, eta bai babeslekuak suntsitu dizkiegulako.

Baina bestetik, kukuaren bizimoduak badu ezaugarri bat bilakatzen duena biodibertsitatearen egoeraren adierazle nabarmen: bizkarroi bitxia da. Fama-tua denez, kuku emeak bere arrautzak ipintzen ditu ez berak egindako habia batean baina beste txoriek egindako habia bat baino gehiagotan. Kuku kume bakoitzak jaio orduko egingo duen lehen lana da habiatik kanporatzea ondoko beste arrautza eta kume guztiak; bere gurasotzakoak behartuta egongo dira




MIKE MCCARTHY kazetaria 'Clement' izendatutako kukuak aske uzten, marka eta emisorea ipini ostean.

ANDY CLEMENTS

haien kumeen ordez arrotz bat elikatze-
ra, berehala haiek baino askoz handia-
goa egingo den kume potoloa.

Oso luzea da kuku kume bat ohar-
kabeen haztera kondenatutako txorien
zerrenda, eta denak dira kuku baino

askoz txikiagoak, hala nola txantxan-
gorria, lezkaria, txinboa, buztangorria,
txioa, buztanikara, txoka...Txori xehe
hauek guztiak izugarri urritu dira azken
hamarkadetan. Bakar bat aipatzearen,
gaur 60 urte baino gehiago duen herri-
tar askok ezagutu dituzte txori horieta-
ko batzuk kaiolan kantari, gaztetxoek
mendian biskaz edo bestelako artez har-
rapatuta. Egun, txoka (*Linaria Cannabi-
na*) eta haren kanta ederra gazte bati
aipatzea arkeologia ariketa egitea da.
Txori txikiok urritzearekin gutxitu dira
kuku bikoteentzako habiak eta kumeen-
tzako sasi-gurasoak.



BTO

'PJ' KUKUAK 2021ko udazkenetik 2022ko udaberria bitartean egindako bidaia luzearen ibilbidea.

BTP ornitologia elkartek satelitez zaintzen duen 'PJ' kukuak zazpi urtean 96.000 kilometro egin ditu Ingalaterratik Kongora joan eta etorri

Xomorroen desagertzea bezala txori txikiena lotuta daude –pestizidez eta lurraldearen artifizializazioaz gain– landarediaren biodibertsitate galerarekin.



PREDATAR

TXANTXANGORRI 'guraso engainatua' berea uste duen kuku kume lumatu berria elikatzen.



THOMAS LEPOUTRE

Euskal Herrian ere zientoka kilometro heskai suntsitu dira azken hamarkadotan, errepide eta etxegintzarako bezala soroak zabaltzeko 'concentración parcelaria' edo 'remembrement' deituetan.

Baso nahasien ordez zuhaitz-monolaboreak nagusitu dira denetan aspal-ditik, gurean pinua luzaz, eukaliptoia gero eta gehiago. Hori bezain kaltegarria izan da Europa osoan galdu izana heskaiak, hesi biziak zuhaitz, zuhaixka, sastraka eta klase guztietako landarez osatuak. Horien aniztasunak baldintzatzuten zituen eta ditu xomorro, txori eta gainerako izaki bizidun gehienak, eta milaka kilometro heskai suntsitu dira 1960ko hamarkadatik.

Aberdeengo (Eskozia) unibertsitatean irakasle ari den Chloe Denerley biologoak 2018an argitaratutako ikerlan batean aurreratu ditu kukua berreskuratzeko Britainia Handian bezala Europa osoan eman beharko lirakeen zenbait aldaketa: "Alde guztietan sustatu behar da belazeak be-

"Sustatu behar da soroetan pestizidak murriztea, landare anitzez osatutako belazeak, heskaiak eta bide bazterrak gutxiagotan moztea..."

Chloe Denerley

rriro landare anitzez osatuak egotea, soroetan pestiziden erabilera murriz-

tea, heskaiak eta bide bazterrak urtean behin edo gutxiagotan moztea eta hauen azpiko sastrakak bakean uztea, soroetatik kanpo ongarri kimikorik ez erabiltzea..."

Egitarau zorrotza proposatzen zaigu, beraz, bai nekazaritza eta lurraldearen kudeaketa planifikatzaileei, baina baita ere herritarroei, *bazterrak garbi* eduki behararen eta *villa* tankerako txaleten kultura estetikoaren esklabo bilakatu garenoi. Hona egitaraua: eraman dezagun berriro gure bazter guztietako biodibertsitatea gutxienez 1960ko hamarkadako mailaraino, eta orduan, landareak, loreak, xomorroak, beldarrak eta txori xeheak 1960etan adina ugaritutakoan, orduan hasiko dira berriro kukuen kantak ugaritzen. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
www.zinkunegioptika.com



LAPIMA Eguzkitako betaurreko bilduma berria

Iosune de Goñi García

POESIA SAREEN EHULEA



IDAZTEKO GAUZARIK EDERRENETAKOA DA IDAZLE GAZTEOK GURE ARTEAN SORTZEN DUGUN HARREMAN SAREA



Kontrakoa irudi arren, idaztea ez dela bakardadean egiten den zerbait dio Iosune de Goñik eta literatura armiarma-sare bezala definitzen du. Poesian eta aktibismo sozialean mugitzen da trebe. Feminismoaren alde eta kapazitismoaren aurka aritzen da sare sozialetan. Ideiak garbi eta bihotza bero ditu.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Zer harreman ikusten duzu argazkien eta hitzen artean?

Literaturaren eta argazkilaritzaren hizkuntza ezberdina da, baina biek ematen digute mundua beste modu batean ikusteko eta ulertzeko aukera. Askotan esaten didate nire poemak oso bisualak direla, edo nire argazkietan poesiaren aztarna aurki daitekeela, eta iruditzen zait nire kasuan elkarreragin handia dutela. Argazkilaritzan literaturatik aldentzeko murgildu nintzen, hitzen mugetatik haratago joan nahi nuelako, nolabait. Baina denborarekin biak elkartzen joan ziren. Bietan gauza bera bilatzen dudala uste dut, antzeko metaforak erabiltzen ditudala.

Batez ere zure lehen liburuan, *Trenza roja* fanzinean, elkartu ziren biak. Nola sortu zen ideia?

Trenza roja Inés Martínez idazle eta kazetariarekin sortu nuen. 15 urte genituenean hasi ginen bakoitza bere bloga idazten eta elkar irakurtzen. Ez genuen elkar ezagutzen, bera Madrilgoa zelako eta ni Burlatakoa, baina harreman literario birtuala sortu genuen. 2017. urtean gaixotasunari buruzko proiektu bat sortu nahi nuela erabaki nuen, eta Facebook bidez eskatu nion jendeari gai horrekin lotutako sormen lanen berri ematea. Momentu horretan Inesekin hitz egiten hasi nintzen, eta elkarrekin fanzine bat sortzea erabaki genuen. Liburua 2020ko amaie-

ran argitaratu genuen, azkenean. Gorputza, gaixotasuna eta mina bezalako gaiak jorratzen ditu, baina baita adiskidetasuna, zaintza eta onarpena ere. Gorputz gaixoa maita daitekeela erakutsi nahi genuen, eta hartan, batzuetan, babesa eta argia aurki daitezkeela, ez gaudela bakarrik, gu bezalako beste pertsona asko daudela.

Jende askorentzat arrotza da gaixotasunaz hitz egitea...

Hasiera batean emakumeek idatzitako literatura irakurtzea ere arraroa egiten zitzaion jende askori. Orain gutxira arte ohituta geunden soilik gizon zuriek idatzitako liburuak irakurtzera, eta emakumeek idazten hasi ginenean esan ohi zen



Iosune de Goñi García

BURLATA, 1993



Idazlea, argazkilaria eta itzultzailea da. Feminista eta kapazitismoaren aurkako aktibista. Filosofiako Gradua amaitu ostean, Bartzelonan Literatura, Artea eta Pentsamenduari buruzko Ikasketa konparatuen gradu-ondokoa egin zuen. Hilda Doolittle idazleari buruzko tesia egiten hasita, osasun arrazoiengatik utzi behar izan zuen. Egun Ingeles Ikasketetako Gradua amaitzen ari da eta itzultzaile gisa egiten du lan. 2020an *Trenza roja* fanzinea argitaratu zuen Inés Martínez idazlearekin batera. 2021ean Pasaia Hiria-Xabier Portugal poesia saria irabazi zuen *Gorputz baten aztarnak elurretan* poema bildumarekin. Iruñeko Udalaren Egile Berrientzako Literatur Lehiaketan ere lehen saria irabazi berri du *Itzala uraren azpian* lanarekin. Liberoamerika argitaletzeko editorea da, Ane Zubeldiarekin batera.

hori emakumeentzako literatura zela eta ez zela unibertzala.

Uste duguna baino jende gehiago dago gaixotasunetik gertu. Iruditzen zait gai hori ez dela asko jorratzen, baina bai oso presente dagoela, are eta gehiago pandemiak eragin duen egoerarekin. Garrantzitsua da horri buruz hausnarketa egitea, gustukoa ez izan arren. Gaixotasunari buruz hitz egiteak gure zaugarritasuna ekartzen digu gogora, eta goiz ala berandu gu ere gaixotu eta hil egingo garela. Agian horregatik ez dugu ikusi nahi, ez dugu horri buruz hitz egin nahi, eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak baztertzeko ditugu, edo ez ikusiarena egiten diegu gaiari buruz hitz egiten duten bakoitzean.

Gaixotasunean ere genero arrakala dago?

Bai, noski. Nik diagnostikoak lortu arte oso gaizki pasa nuen medikuen aldetik biolentzia handia jasan nuelako, batez ere emakumea eta gaztea izategatik. Pentsatzen dut gauza bera gertatuko dela gurean hegemonikoa ez den arrazarekin edota identitate eta orientazio sexual ezberdinak dituzten pertsonekin. Ikerketa askok erakusten dute emakumeoi ez digutela kasu berdina egiten kontsultara goazenean. Askotan probarik egin gabe ere, esaten dizute daukazuna psikologikoa dela edo esajeratzen ari zarela, histerikotzat hartzen zaituzte... Emakumeontzat zailagoa da diagnostiko bat lortzea, batez ere gaixotasun arraroa edo kronikoa denean, eta guk pairatzen ditugun gaixotasunak ikeretzeko diru gutxiago bideratzen da. Medikuntzan gauza asko dago aldatzeko.

Pandemian ezer ikasi dugu gaixotasunaren inguruan, jendarte bezala?

Ez daukat oso argi. Pandemia heldu zenean ni ez nintzen etxetik apenas ateratzen, oso gaixorik nengoelako. Konfinamendu aurretik gaixo asko konfinatuta geunden, gizartetik guztiz kanpo, mundu publikoan parte hartzeko aukerarik gabe. Pandemia iritsi zenean bat-batean dena irigarri egin zen, guri ordura arte ukatu zizkiguten aukera guztiak posible egin ziren.

Ikusten ahal zenituen kontzertuak, hitzaldiak, museoetara joan modu bertualean... Etxetik ikasi, etxetik lan egin. Iruditzen zait aukera horiek orain desagertzen ari direla, beraz ez dakit ezer

ikasi ote dugun, normaltasunera itzultzeak dakarrelako atzean gaudenok berriro atzean gelditu behar dugula. Hala ere, uste dut COVIDa dela eta, gaixotasuna orain gertuago ikusten dugula, eta literaturaren munduan gero eta gehiago idazten da gaiari buruz, baina asko gelditzen zaigu oraindik ikasteko. Zaila da bestea ikustea, batez ere baztertuta dagoenean, ikusezin bilakatzen dugunean.

Zuretzat poeten arteko sareak ehuntzea garrantzitsua da. Zergatik?

Beti pentsatzen dugu literatura bakardadean idazten dela, baina ez da egia. Testu bat beti dator nonbaitetik, beste ahots batzuk daude horren atzetik eta beste batzuk egonen dira gero. Oihartzun bat da. Nik beti idatzi izan dut beste norbaitekin. Txikitan amarekin hasi nintzen ipuinak asmatzen, gero gaztetan blog batean idazten nuen eta egunero irakurtzen nuen nire adineko beste batzuek idazten zutena. Hori gaztelaniazko literaturari dagokionez. Euskaraz desberdina izan da, Euskal Herrian ez delako egon blogen moda hori. 18 urterekin Urruzuno Literatur Lehiaketa irabazi nuen eta saria bidaia bat izan zen beste idazleekin batera. Handik beste sare bat sortu zen, eta gaur egun han ezagutu nituen idazle askorekin harremana mantentzen dut. Elkarlanetik ere sortu zen *Trenza roja*, eta momentu honetan Cristina Jiménez ilustratzailearekin lanean ari naiz berehala zabalduko dugun erakusketa prestatzen. Leire Alonso idazle eta musikariarekin behin baino gehiagotan eman ditur errezitaldiak biola eta poesia bat eginez...

Idaztearen gauzarik ederrenetakoa da idazle gazteok gure artean sortzen dugun harreman sarea. Esan dudanez, idazle eta sortzaile askorekin harremanetan nago, modu pertsonalean zein bertualean. Literaturaz eta bizi-tzaz aritzen gara solasean, gutunak edo poemak idazten dizkiogu elkarri eta proiektu batzuk partekatzen ditugu. Ez dakit idazten jarraituko nukeen sare horregatik izango ez balitz. Literatura armiarma-sare bat da. Elkarrekin ehuntzen ditugu hariak.

Gaztetasuna eta poesia oso lotuta doaz beti. Sentimenduak ziztuak borborka jartzen dituelako ote da? Bai, idazle gazteok gehien lantzen du-



gun generoa dela esango nuke, eta gerora narratiba idazten duten autore asko ere poesiarekin hasten dira. Ez dakit sentimenduei ematen dien garrantziarengatik den, badirelako emozionalak ez diren poema asko. Iruditzen zait luzera kontua dela. Gero eta azkarrago bizi gara, ez daukagu aisialdirako denborarik, eta idazteak denbora eta lasaitasuna eskatzen du. Poema bat idazteko ez da eleberri bat idazteko bezainbeste denbora behar. Horrez gain, estilo kontua ere izan daiteke: poesiak gauzak beste modu batean esateko aukera ematen du, hizkuntza bera zalantzan jarriz, eta belaunaldi berriek hizkuntza berri baten beharra dutela uste dut. Zentzu horretan, poesia malguagoa da, aukera gehiago zabaltzen ditu.

Aldaketa handia sumatzen duzu erritmoari eta denborari dagokionez?
Bai, azken urteetan bizitzaren erritmoa

asko aldatu da eta belaunaldien artean alde handia sumatzen da. Askoz azele-ratuago bizi gara. Uste dut izugarritzko gainzama sentsoriala dugula, estimuluez bombardatuta bizi garela. Kapitalismoaren kontua ere bada. Produktiboak izan behar dugu, toki guztietan egon, gauza piloa egin. Izugarritzko estresa eragiten du, eta sortzeko gelditasuna behar dugu, hutsunea, pentsatzeko espazioa eta denbora.

Liberoamerika beste sare interesgarri bat da. Zertan datza?

Liberoamerika 2017. urtean sortu zen ekimena da, Latinoamerika eta Iberiar Penintsulako idazle gazteen lanak argitaratu eta zabaltzeko helburua duena.

Gaur egun Argentinan eta Euskal Herrian ditugu argitalpen taldeak, herrialde guztietako idazleak biltzen dituen aldizkari birtual batekin batera. Euskal

Herrian 2020an plazaratu genuen lehen lana, *Izotzetan islatuak*. *Euskal idazle gazteen bilduma*, eta orain, 2022an, *Barrenetik zulatzen zaitut*. 8 ahots itsasertzetik liburua argitaratu berri dugu. Liburuak Latinoamerikako lau idazleren lanak biltzen ditu, lau itzultzailek euskaratuta-koak.

Oso desberdinak dira hango eta hemengo literatura?

Idazteko modua desberdina dela esango nuke. Euskal Herrian idazten den poesia zuzenagoa da, argiagoa, agian politikoa-ago ere bai. Argentinakoa, aldiz, korapilatsuagoa, metafora gehiago eta esaldi luzeagoekin... Mundua ikusteko edo deskribatzeko modu desberdinak dira. Hala ere, denetarik dago, *Barrenetik zulatzen zaitut* liburuan ikus daitekeen bezala.

Eta mitologiak zer ematen dizu?

Txikitatik izan naiz oso mitologia zalea. 15 urte nituenean izebak Egiptora eramandu ninduen, antzinatearekin obsesio-natuta nengoelako, eta gaur egun asko interesatzen zaidan gaia da. Akademiko-



Azken hitza

NATURA

“Natura beti dago presente nire poemetan. Naturak beste erritmo bat jarraitzen eta benetan garrantzitsuena zer den ikusten erakusten digu. Bertan osotasun bat dago, gauzak bere aniztasunean biltzen dituen. Elementu eta izaki guztiak elkarren artean konektatuta daude, sare bat osatuz, eta uste dut gizarte kapitalista eta indibidualista honetan hori askotan ahazten zaigula. Agian kolektibitatean pentsatzea eta aniztasuna onartzea izan daiteke naturatik ikas dezakeguna. Feminismoak, adibidez, ikas dezakeena da emakume izateko modu asko daudela. Esango nuke mugimendu sozial guztiak izan beharko luketela natura gogoan”.

ki ere ikertu izan dut: master amaierako lana eta doktoregoa Hilda Doolittle idazlearen obrari buruz egin nituen, feminismoaren eta mitologiaren arteko erlazioa aztertuz. Heldu zaizkigun mito eta kon-daira gehienak gizon zuri, gaitu, hetero-sexual eta klase altukoek ikuspuntutik kontatuak izan dira, eta beharrezkoa iruditzen zait narrazio horiek berrikus-tea, eta baita mito berriak asmatzea ere. Poesian ere oso tresna interesgarria da mitologia, azken finean, gure bizitzari buruz hitz egiteko metafora bat delako, gauzak beste era batean esateko modu bat.

Matriarkatuaz zer pentsatzen duzu?

Ikerlari batzuek diote indoeuroparrak heldu baino lehenagoko garaian, ma-triarkatua baino gehiago, berdintasu-nean oinarritutako gizarte bat izan omen zela, non armak eta gerra ez ziren existitzen. Batzuetan asko idealizatzen da gizarte hori, baina oso interesgarria iruditzen zait halako garai bat existitu izana edo, behintzat, ideia hor egotea, horrek esan nahi duelako horren antze-ko zerbait imajinatu edo eraiki dezake-gula berriro. Ideia horrek Hilda Doolittle eta bere garaiko beste idazle batzuen

lanetan eragin handia izan zuen, eta nire poema batzuetan ere agertu izan da.

Gorputz baten aztarnak elurretan, zure lehen poesia liburua Jacqueline Winter Thomas-i eskaini diozu. Nor zen Jacqueline?

Jacqueline AEBetako idazle bat izan zen, 2019an hil zena, 28 urte zituela. Poesia, artikulua eta egunerokoak idatzi zituen bereziki, eta unibertsitatean poesia eta teoria kritikoari buruzko klaseak ematen zituen. Ni ere filosofiaren eta poesiaren artean mugitu izan naiz, eta berarekin oso identifikatuta sentitzen nintzen. In-teres berdinak genituen, liburu berdinak irakurtzen genituen eta asko gustatzen zitzaidan berak idazten eta partekatzen zuena. Munduaren bestaldean bizi zen ahizpa ezezagun bat zela sentitzen nuen. Hil zenean gogorra izan zen inorekin min hori konpartitu ezin izana, aurretik ez nuelako inorekin Jacquelineri buruz hitz egin. Iruditzen zitzaidan ez nuela gaizki egoteko eskubiderik, ez genuelako elkar ezagutzen. Denborarekin, berari buruz idaztea erabaki nuen, bere memoria eta bere lana bizirik mantentzeko. Horretar-ako, idatzi zuen guztia biltzen saiatu nin-tzen, konplikatu izan zen arren. Hortik

jaio zen *Gorputz baten aztarnak elurre-tan*. Elkarrizketa bat dela esango nuke, bi ahots poetikoen arteko solasaldia, he-riotzaren eta hizkuntzaren ezintasunari buruzko gogoeta.

Eta Itzalak uraren azpian lan sarituan zertaz aritzen zara?

Pasa den udazkenean idatzi nuen, Grezia-ra egindako bidaia batetik itzultzerakoan. Eguneroko baten moduan idatzita dago, baina deskribatzen diren bizipenak iraganaren parte dira, oroitzapen bilakatu dira. Beraz, *Itzalak uraren azpian* memoria ariketa bat da, non iragana, oraina eta, batzuetan, geroa nahasten diren. Bidaia nire bikotekidearekin egin nuen, eta Gre-zian geundenean itsasoaren azpiko hon-dakinei buruz hitz egiten ibili ginen, behin eta berriro. Itzuli nintzenez, argi nuen bidaiari buruzko lan bat idatzi nahi nuela, eta itsas hondoko bizia edo suntsiketa metafora nagusi bezala erabili nahi nuela. Horrez gain, bidaian Hilda Doolittleren liburu bat eraman genuen gurekin, berak Greziari buruz asko idatzi zuelako, eta hori ere nire lanean islatzen da. Orain-goan ere beste elkarrizketa bat sortzen dut, Hilda Doolittleren esaldiak eta aipuak nire poemetan txertatuz. ●



Ekainaren 2tik 5era,
Bilboko Areatzan

- ✓ Gazteen proiektuak
- ✓ Tailerrak
- ✓ Profesionalen standak

zientzia
azoka

Bizi
ikerketak

zientzia-azoka.elhuyar.eus



10.
edizioa

Babesleak



Kolaboratzaileak





Eskubideak eta jokabideak nazioartean zein naziogintzan



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Giza eskubideen babeserako nazioarteko sistema aztertzen duen master batean partaide izan naiz oraintsu unibertsitatean. Paradoxa lazgarria agertu zaigu bertan. Alde batetik, Nazio Batuen sistema unibertsala deituak lortu du, maila arauemai-lean bederen, goren gradua kontsidera daitekeena; hau da, mundu mailan badugu nahikoa kode, arau, erakunde eta batzorde gure planeta honetan gertatzen den gatazka, injustizia, zapalkuntza edo bidegabekeria oro aztertu eta konponbidean jartzeko aukera ematen digutenak. Baina Nazio Batuen Erakundeak berak ez du arau zuzen horiek indarrean jartzeko behar adinako aginterik.

Bigarren Mundu Gerra deitu zen izugarrikeria hura gertatu eta berehala eratu zen nazioartean, halaberharrez, Nazio Batuen Erakunde deitua, berriro ere munduan era hartako gerra suntsitzaile-rik gerta ez zedin antolatua. 1945 urte berean abiatu, eta Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarria edota Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak finkatu zituen, nazioarteko zein estatuen barruko istilu eta gatazka larrienak ere modu baketsu eta demokratikoan konpontzeko moduan. Baina joan dira ordutik 75 urte luze eta ezin esan aurrerapen handirik egin dugunik. Inork ez du horrela aitortu nahi, baina inor gutxik uka dezake egunotan hirugarren gerra zabal eta are suntsi-

Eskubideak aldarri,
baina pragmatismoa
deitua nagusi.
Politikaren eremua
inkoherentziaren
agertoki bihurtu zaigu,
etxe barruan ere bai

garriago baten atarian egon gaitzkeela.

Zer gertatzen zaigu gizakioi? Eskubideen arautze horretan emandako urratsez harro agertzen gara, zibilizazioaren eta gizalegeen eredutzat agertzen ditugu nazioarteko arauok, norbere estatua ere demokraziaren eredu agertu nahian. Baina eskubideetatik jokabideetara dagoen lubakia gero eta handiagoa da. Ahoz goiraipatzen diren eskubideak berak zapuzten dira, ahapeka edo disimulurik gabe, modu nabarian. Demokraziaren tenplua omen zena bidegabekeriaren erresuma bihurtzen da, guztion larridurarako.

Eskubideak aldarri, baina pragmatismoa deitua nagusi. Politikaren eremua inkoherentziaren agertoki bihurtu zaigu, etxe barruan ere bai. Printzipio demokratikoak egun seinalatuetako aldarri ditugu, independentzia edo burujabetza, na-

ziogintza edo euskalduntzea, errepublika edo aniztasuna, Korrika edo Euskaraldia, baina iskin egiten diegu horiei guztiei aliantza taktiko tentagarri baten eskaintzaren aurrean. Eta horrela jokabideak eskubidea bazterreratzen du, hurrengo baterako utziz. Erabakitzekeo eskubidea omen dugu, baina besteen erabakietara batzen gara.


Agian oinarrizko printzipio bat ahaztu dugu, eskubideak unibertsalak izanda ere, horien gauzatzeak konkretua, zehatza, partikularizatua behar duela izan. Demokrazia ez da inoiz errealitate metafisikoa izango, komunitate zehatz bateko praktikatik at dagoen itun sakratua. Komunitate demokratikoak orube zehatz, material, konkretua behar du. Nork bere etxea behar du antolaketa demokratikoaren oinarri. Gure etxea Euskal Herria da, eta horren gainean eraiki beharko dugu nazioa den sistema demokratikoa. Barruan eraiki eta nazioartean kokatu.

Pragmatismo politikoa deituak, gurean, ahaztu egiten du oinarrizko faktu zientifiko hau, eta nahasi egiten da besteen eraikuntza amaituetan, gure etxe propioa planoetatik errealitatera eramateko ahaleginik egin gabe. Eta nahaste horretan ipintzen ditu galbidean gure etxe propioaren oinarri beharko luketen hainbat zutabe: euskara, lurraldea, errepublika, gutasun espezifikoa. Itzulpenean galtzen du gure euskalduntasuna. ●

Euskaldunberrien fabore



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Mundua multzo eta kategorietan bereiztea baino ekintza humanoagorik ez dago. Eta, hala ere, maiz ez dugu gustuko geure burua halako batean sarturik ikustea. Normala. Kategoría horiei egozten dizkiegun balioetan datza askotan aferá. Honi gehitzen badiogu gutxitutako hizkuntza bateko hiztunak garelá eta gatazka linguistiko-identitario-nazional bortitz honetan kateaturik gauzkatelá, hamaika tentsio linguistikoren koktela prestatuárik dago.

Baina zergatik ez duzue maite zuotako batzuek euskaldunberriak izateá? Ea noiz lortuko duten heltzea, euskaldunberriak izatetik, euskaldunak izatera, galdetzen dute zenbaitek. Eta susmoa daukat honetan zerikusia daukala, besteak beste, gaur egun euskalduntasuna ulertzeko daukagun moduak, seguruenik berreuskalduntze prozesu politikoarekin lotuta dagoena: euskalduntasuna norbaitek eman behar digun zerbait da, egiaztagiri modukoa, noizbait erdietsiko duguna.

Zorionez, ez du horrela funtzionatzen, lagunok, bizi osoa diráuen bidaia da hizkuntzaren jábekuntza.

Bidaia eder, pozgarri eta txundigarria da. Euskaldun guztiona. Ezin adosago egon Karmele Jaiorekin: denok gara euskaldunberriak, hizkuntza bat egunero

hasten delako. Hizkuntza gara, hizkuntza egiten ari gara eta erronka erraldoiak daukagu aurretik.

Edozelan, lehen hizkuntzaren jábekuntza eta bigarren hizkuntzaren jábekuntza prozesu psikologiko ezberdinak dira. Hain ezberdinak, ezen fisiologikoki ere gure garunak diferente jokutzen baitu. Eta batek esfortzu handiagoa eskatzen badigu ere, zorientasun handiagoak ere eman ahal dizkigu.

Bigarren hizkuntza bat ikastean, ahalegin erraldoia egin behar da parametro guztiak menperatzeko: fonetikoak, morfosintaktikoak, lexikoak... hizkuntza hausnartu egiten dugu. Eta horrek, askotan, ezagupen kontziente sakonagoa eman diezaguke jaiotzetik jaso duenak izan dezakeena baino.

Bidaia itzela da geure buruaren prozesuetan erreparatzen badugu: zer, noiz, nola egiten dugun egiten duguna, zergatik eta norekin egiten dugun... Gogoratzen al duzue ama hizkuntzaz ari zineten hartan eta euskarazko berba batek erdarazkoa modu naturalean ordezkatu zuen lehenbiziko aldía?

Ondo pentsatzen badugu, euskaldunberriok askatasun handiagoa daukagu euskara plastilina moduan erabiltzeko. Ez gaude ezein euskalkitara edo herriko

modutara loturik. Bidean gustuko dugun hori hartu eta gure ondarrera gehitzen dugu. Gure gustuko idiolekto propioa sortzen joaten gara.

Baina, Sonia, ez ezazu tranparik egin. Aitortu zuk ere urteak eman dituzulá sentipen arraroekin... Bai, eta agian horrexegatik idatzi dut hau. Ibilbide liluragarria da hizkuntzak gugan egiten duena. Erreparatu horretan. Sexuan bezalá, konplexuak erantztea modu bakarra da benetan gozatu ahal izateko. Eta beste kontu bat ere aitortuko dizuet: familia politikoaren baserrian oraindik sentitzen naiz inoiz edo behin *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* liburuan banengo bezalá. Eta ez da ezer gertatzen.

Euskaldunberritasuna nire altxorra da. Guztiz preziatua. Bideak eman eta ematen didan guztiagatik maitatua; ez, ordea, dakarren esfortzuagatik. Inork ez du horregatik apartekorik merezi. Ez da lana konbentzimenduz eta gustura egiten dena. Eta denok dakigunez, ezer baldin bada benetan zaila, hori euskalduna izateá da, euskaraz bizitzeá, gure hizkuntza eremu guztietan naturaltasunez erabili ahal izateá. Egia ukaezina da: funtsean, berri ala zahar, denok gara euskaldunak eta denok gaude lubakiaren alde berberetan. ●



**KOLDO ALDALUR
HIRIGOIEN**
KAZETARIA

Hitzak

Hitz batek, existitzen ez delako, ia dena esan dezake. Beste hitz batek, nekatutik, ez du ezer adierazten. Hitz ezezagunak proposamen berria egin diezaguke. Eta badira hitz jolastiak ere.

Amazoniako basoan bizirauten duen tribu batean 'bakardadea' hitza ez dutela ezagutzen irakurri berri dut. Galdetuta, bertakoek erantzun omen dute ez dutela ulertzen nola egon zaitezkeen bakarrik naturaz inguraturik bazaude. Bakarrik ala hutsik? Horiek bi kontzeptu ezberdin dira, nahiz eta sarri elkarrekin dantzan dabilizan. Agian, Xabier Letek aipatzen zuen ezerezaren ezerezez galdetu izan baliete ere, prest izango zuketen ikertzaille orojakileari matrailak gorritzeko moduko erantzunen bat. Egunsentiko esku izozturik ez, itxuraz, baso emankorrean.

Ukrainako inbasioak erakutsi digu ezer adierazten ez duten hitzak ere badirela: demokrazia, bakea, gatazka... duintasunik gabe, erabileraren erabileraz, hitz nekatuak dira. Kolorgetu egin dira, eta zentzurik gabe dabilta agintarien ahotan. Ezkutatzeko balio dute azaltzeko baino gehiago. Engainatua izan nahi duenari zuzenduak, pentsatu beharrik izan ez dezan.

Beste hitz batzuk probokatu egiten gaituzte. *Fukungisisa*, esate baterako. Zimbabweco Shona hizkuntzak berea duen hitza da. Depresioa adierazteko hitzik ez dute inguru hartan, eta 'gehiegi pentsatzea' adierazten duen kontzeptua erabil-

tzen dute. Borborrean dabilen kezka emariak lepagaineko errotari pausatzeko betarik ematen ez dionean gertatzen denaz ari direla uste dut. Badakizue, gai bati bueltak eta bueltak ematen zaizkionean, beti hasierako tokian amaitzeko.

Horren harira, euskaraz 'tristealdia' erabili ohi dugula otu zait. Baikortasunera bultzatzen gaituen hitza: 'aldia' bada esan nahi baitu, behar den bezala artatuz gero, atzean uztea lor daitekeela (Pentsatzen nian, bai, 'Ogrue' ez hintzela ados egongo!)

Hitz bakar batzuk propio gure bidean jarriak dirudite, beraiekin jolas egin dezagun. Hona hemen gertu topatu ditudan ale batzuk: 'prentsa' ideiak zukutzeko toleara ote da? Eta, 'prekaritate' kalean eskean hasi aurreko garaia ote? Hain gutxitan erabiltzen den 'autokritika' egunkarietan zein kotxe erosi behar dugun argitzen digun orria, akaso? 'Presioa' eta 'prezioa' hitz bera izan daitezke azpeitiar baten ahotan. Baina presioa al da hilero etxera soldata eramateko ordaindu behar izaten dugun prezioa? Bukatzeko, 'arrakala'. Gizonezkoak al gara ba, lanpostu berean arituta, lan baldintza kaxkarragoetan aritzen garenak?

Ibili-ibili eginda, ez ote da kontua bakardadeari beldurrik ez dionak ez daukala gehiegi pentsatu beharrik? Hala izan ala ez, bizitzak gain hartzen digunean, hitzak alperrik dira. ●



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Hipotesiak

Gurutzatzen ditudan lagunen arabera, bi filma heldu zaizkigu mihiak kilikatzerara, edo bat, edo bestea. Arrakasta handia bildu du Iparraldean Thomas Lacosteren *L'hypothèse démocratique* bi orduko dokumentalak. Borroka armatuaren garaiko lekuko entzutetsuenak ageri dira pantailan, justuki armarik gabeko ETA batek irudikatu euskal etorkizun moduko bat aipatzen. Interesgarria zinez, nahiz eta *etsaia* deitzen zenaren figura, konponbide proposamen horretatik aski kanpo geratzen den.

Hipotesia mesianiko berria eskaintzen dutela erraten didate, preseski, Iciar Bo-

llainen *Maixabel* obra ikusi duten adiskide apurrek. Badirudi honek ez duela halako hartzerik gure artean, min egiten diguten zauriak irekitzen balitu bezala. Arriskua hor al dago? Alta hori liteke bidea, hau da, eragin den dolorearen ukamenetik urruntzea, elekatzen hastea, hitzak ideologiaren konfort-tokitik eramango gaituela jakin arren.

Errepikatzen naiz, baina agian, gerorako balio duen balizko hipotesia demokratikoa biktimekiko enpatiarena da, ulermenarena, ahantziz behingoz, afera horretan guk ere kolpe latzak hartu ditugula. ●

Helduontzako zentroak



RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA
EUSKARA IRAKASLEA

El Correo, David González (2022-IV-19): “30 bat adin gutxikok beren bidetik zetorren oinezko bati eraso egin diote Gasteizen. Inguratu eta ostikoak eta ukabilkadak jo dizkiote. Eraso segundo batzuetan luzatu eta taldea sakabanatu da, biktimak laguntza eskatu eta ertzaintzaren lehen patruilak agertu direnean”.

Udaltzaingoak ere egin zituen adierazpenak: “Nerabeen arteko liskarrak ohikoak diren arren, holako eraso bat berria eta kezagarria da, mota horretako lehenengoa” (gure hiri, esan gabe doa, lasaitxoan).

David González eta biok Txagorritxun bizi ginen txikitari, eraikin berean. Gure nerabezaroan, aldameneko eraikineko atezainari eraso zioten gaztetxo batzuek; hainbat saihestes-hezur hautsi zizkioten, eta hiru hilabete eman zituen ospitalean. Orduko Gasteizen, edozein parketan ematen zizuten paloa: erlojua, arropa eta dirua indarrez harrapatu. Egunero zeuden liskarrak: auzo batekoak bestekoen kontra, heavyak, punkak, blusak, modak, borrokak eta pijoak. Liskarzaleenak tren geltokian geratzen ziren *street fighter* egiteko (etxean egindako lutzakoak, makilak, harriak...).

Guaiagoak eta modernoagoak bagara ere, gure familiek segitzen dute izaten instituziorik ukitu ezinenetako bat, eta geu gaude orain ontziko lemazain

Gonzálezzen ibilbidea jarraitu dugunok badakigu irakurtzen bere esan-gabe-doa horietan ere. Adibidez, bestelakorik esaten ez zaigunez, badakigu 30 eraso-egile horiek azal zurikoak direla. Eta bestelako markarik ere ageri ez denez, pentsatzen dut familia ‘normal’etako seme(alaba)k direla. *El Correo familiak*.

Gure kuadrillan berehala hasi ginen Telecinco-ren mailako tertulia moduan. Lehenik, jipoa pairatu zuen gizonarekin enpatia izan genuen, ohiko arrazoi logikoez gain, dagoeneko belaunaldi kideztat hartu genuelako, nerabe banda horren aldean, behintzat. Bestalde, eraso egileak

adin txikikoak izanik, aipatu zen eraso musu-truk irtengo zaiela sistema garrantzista honetan.

Alabaina, baguen enpatia izateko moduko 60 bat azal zuriko gasteiztar gehiago esan gabe doa-ko atalean: 30 nerabe horien gurasoak, gure belaunaldi kideak. Izan ere, guaiagoak eta modernoagoak bagara ere, gure familiek segitzen dute izaten instituziorik ukitu ezinenetako bat, eta geu gaude orain ontziko lemazain: xaharrei azaltzen diegu nola bizi, ume eta gaztetxoei bidea erakusten, irakasleak kritikatzin ahal ditugu, sistema, musika eszena, Ukraina, dena. Berdin du. Hori bai, gure kuadrillakoek, anaiak, gelakideak, guk geuk ez diegula kasu handirik egiten umeei, txiki-txikitatik bakean utz gaitzaten mugikorra ematen diegula, kontrolatu, oihukatu, gaizki tratatzen ditugula? Hor inor ezin da sartu.

“Espetxeak apurtu” oihukatutakoa naizenez, helduontzako zentroak aldarrikatatu nahi ditut: maiztasun jakin batekin heldu guztiok (batez ere espektatibak bete ditugunok: familia, lana, etxea...) barnetegiak egin, eta gero gure bizitza arruntetara itzul gaitzaten.

Esan gabe doa, premiazkoa da. ●

aholkukoop
Fiskala Kontablea Laborala

**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus

LUA arkitektoak

ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA
www.luark.com
948132697 - Arga ibaiak kalea 28-30 Iruña

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

ARABAKO BERTSOZALARI TXAPELKETA 2022



1. FINALERDIA

MAIATZAK 28

Larunbata, 17:30ean

ARAI A

Andra Mari aretoan



Asier
Otamendi
Alkorta



Andere
Arriolabengoa
Bengoa



Felipe
Zelaieta
Txurruka



Iñaki
Viñaspre
Simon



Manex
Agirre
Arriolabengoa



Paula
Amilburu
Izargarai



Maddi
Agirre
Epelde



Oihane
Perea
Perez de Mendiola



Unai
Anda
Delika



Peru
Abarrategi
Sarrionandia



Rikardo
Glez. de Durana
Alzola



Xabi
Igoa
Eriz

Gai-emailea: Eli Plazaola Zubizarreta

Gai-emailea: Olatz Santocildes Martinez



www.bertsozale.eus/araba
www.bertsosarrerak.eus



Ekainak 4

Ziburuko III. euskal liburu eta diskoen azoka

EGUN BAT EUSKARAREN ERREPUBLIKAN

Ekainaren 4an euskal kulturak hartuko du Ziburuko plaza. Baltsan elkarteak eta ARGIAk antolaturik, hirugarrenez egingo da Euskal Liburu eta Diskoen Azoka. Bertaratzen diren herritarrek etxeratuko dute aurtengo udarako irakurgai edo entzungai gustukorik, jai-giroan murgilduta: hango lagunak eta hemengo ezagunak agurtu; idazle, marrazkilari edo musikariren bati bere lana sinatzeko aitzakian zerbait galdetu; eztarria freskatuz bertso-komiki emanaldia gozatu; idazleen mahai-ingurua eta hitzaldiak belarri zorrotzez aditu...

Hori guztia euskara hutsean, XVII. mendean euskal literatur pizkundeko idazle izan zen Joanes Etxeberriren herrian. Ziburu idazle belaunaldien zubi ere izango da aurten, Janbattit Dirassar omenduz eta zaildutako idazle hau Amaiur Epher gaztearekin buruz buru literaturaz elkarriketan jarriz.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

 DANI BLANCO

ARGIArekin batera Ziburuko azoka antolatzen duen Baltsan elkarteko kideak haien elkarrearen atean.



Euskara hutsean egiten den Euskal Herri mailako azoka bakarretakoa da Ziburuko. Azoka antolatzeko argitaletxeekin harremanetan den Baltsan elkarteak zorrotz zaintzen du mahaietan erakusgai egongo diren liburu, komiki, disko, jolas eta gainerakoak erabat euskarazkoak izan daitezzen. Izan ere, azoka da Ziburuk duen “euskara hutsezko egun bakarra”. Hala adierazi du Ladix Arrosagaraik, azoka prestatzen burubelari ari den Baltsan elkarteko kidea. Euskal Herri diglosikoan egun oso batez euskarak plaza bat irabaztea da azoka honen helburu



nagusia: “Euskarazko ekoizpenak plazara ekarriz jendeari proposatzen diogu Euskal Herri euskaldun batean bizitzea egun batez. Zeren aldi oro gure eskubi-deak aldarrikatu behar ditugu, egoera deseroso aski gogorretan gara egunero-koan. Aspertuta gaude jendeari beti justifikatu beharrez zergatik egiten dugun euskaraz, eta gure hitza beti zanpatzaileren hizkuntzara itzultzera behartuak izateaz: euskaraz lasaitasunez eta naturaltasunez biziz eta gozatuz eraiki dezagun Euskal Herri euskalduna. Euskara

ez dakiena baztertuta sentitzen dela? Ba, egun batez ezagutzen du guk urte osoan pairatzen duguna!”. Plazan erabat euskaraz aritzeko aukera bermatzeko, Baltzan elkarteak bertako lau ostatuerekin hitzartu du egun horretan zerbitzatzen arituko diren langileak eta jarriko den musika euskaldunak izango direla.

Gainerako egunetan, Euskal Herriko herri gehienetan bezala, “Ziburun oraindik burua itzultzen duzu norbait kalean euskaraz ari dela sumatzen baduzu”, Arrosagaraireren hitzetan. Herri biziki

euskalduna bazen ere, duela 60-70 urte beherakada handia izan zuela azaldu du eta egun euskara dakitenak %11 inguru direla. Hizkuntza berreskuratzeko aha- leginetan dira: “Bada jende bat AEKn dabilena, eta jende horri proposatu nahi genion egun bat euskaraz bizitzeko”. Irakaskuntzak bultzatzen du batez ere euskalduntzea, eta joan den urteko datuek diote Ziburuko hiru haurretik bi murgiltze sisteman edo elebidunean ari dela. Arrosagarai: “Anitz da baina jakina da gela elebidunetan ez direla euskal-

duntzen". Euskara ikasten ari diren baina euskalduntzetik urrun dauden horiekiko zubi bat izan nahi du azokak: "Euskal mundutik nahiko urrun da jende hori, haurrak gela elebidunetara eramaten dituzte noizbait euskara jakin dezaten baina ez euskaraz bizitzeko helburuarekin, eta erakutsi nahi diegu zenbat gauza egiten den euskaraz, adin guztientzat eta genero guztietan". Haurrak eskola elebidunetara eramaten dituzten familia erdaldunak ere azokara erakartzeko berariazko lana egin zuen Baltsan elkarteak iaz: herriko ikastetxe denekin jarri ziren harremanetan, eta



Janbattit Dirassari omenaldia eta Zubiburu mahai-ingurua

dazle belaunaldi zahar eta gazteen arteko zubia ere izan nahi du azokak eta asmo horrekin berrikuntza hau badakar aurtengo egitarauak: "Zubiburu" mahai-ingurua. 10:15ean Janbattit Dirassar Ziburuko idazleari omenaldia egingo zaio eta bera izango da jarraian egingo den mahai-inguruko hizlarietako bat, urteetako esperientziatik mintzatuko dena. Ondoan izango du Amaieur Epher Izpurako gaztea, eta bien artean osatuko dute literatur solasaldia. Dirassarrek ARGIAri zera adierazi dio: "Eskertzen dut omenaldia, baina ekainaren 4an zinez omendu behar duguna euskara da. Hori da etorkizuna, atxiki behar duguna".

Janbattit Dirassar 1937an jaio zen Hazparnen eta 18 urterekin joan zen Ziburura bizitzera, *Sud Ouest* egunkariak Donibane Lohizunen aritzeko lotu zuenean. Aspaldiko urte luzetan *Herria* astekariko kazetaria da. Literatur lan hauek ditu argitaratuak: *Hegiko bordatik* (1995, Elkar) liburuan haurtzaroko oroitzapenak kontatu zituen, *Bihotzeko mina* (1997, Elkar) eleberrian ezinezko maitasuna hartu zuen ardatz, *Bele Xuriak* (2013, Elkar) liburuan jasoa du bizitzako eta egungo munduko hainbat gairi buruzko bere iritzia.



Iaz, Ziburuko azoka eguneko hainbat une. Aurtun ere egingo da bertsoa eta marrazkia uztartzen dituen bertsoZirriborroka bat-bateko emanaldia (erdiko argazkian).

Janbattit Dirassar idazlea omenduko du aurtengo azokak. Argazkian, bere seme Jean Mixelekin azokaren aurkezpen egunean.



proposatu zieten euskal kantu bat lantzea eta azokaren egunean Iturri Zaharrean egin zen haurrentzako ikusgarrian kantatzea. Haur hauek ikustera joan ziren gurasoek azokaren ate irekiekin egin zuten topo eta asko izan ziren beren seme-alabentzat irakurgai eta entzungaien bila aritu zirenak. Iazko arrakasta ikusirik, aurten ere egingo da haurren ikusgarria Iturri Zaharrean.

MUGAK BEREIZTEN DUENA EUSKARAK BATZEN DU

“Hastapenetik antolatzaileak mugaz bi aldetakoak baikara, muga hori gainditzeko dugu euskarari esker”, berretsi du Arrosagaraik; izan ere, euskarazkoa eta nazionala izatea da azokaren bokazioa: “Nazionala izatea nahi dugu bai antolatzaileen aldetik, bai argitaletxe eta idazleen aldetik eta baita publikoaren aldetik ere. Denbora pixka bat beharko da hori lortzen. Hastapenean normala da inguratzen den jende gehiena Iparraldekoa izatea, baina iazko azokan jendea etorri zen Nafarroatik, Gipuzkoatik...”.

Urteak pasa ahala Euskal Herria bitan zatitzen duen muga hori hor dugu

“eta saltarazi behar dugu”, aldarrikatu du Arrosagaraik. Lehenik, gure buruan diren mugak eraistea proposatu du: “Egunean zehar liburu aurkezpenak egiten dira azokan eta ohartu gara argitaletxeak aurkezpen horietarako proposamenak egiterakoan saiatzen direla Iparraldeko idazleak hautatzen. Ados, Iparraldean da azoka, baina nazionala da, liburu bat aurkezteko gure irizpidea liburuaren interesa da, ez idazlearen jatorria”.

PARTE-HARTZEA HANDITZEN

2019an egin zen lehenbizikoz Euskal Liburu eta Diskoen Ziburuko Azoka, ARGIAk 100 urte bete zituela ospatzeko. Komunikabide honek Ziburun dituen lagunei esker, azoka hau elkarlanean antolatzeko harremana hasi zuten Baltsan elkarteak eta ARGIAk.

Eguzki galgatan, jende multzo txiki baina interesgarriekin eguna partekatuta izanaren poza utzi zuen lehen edizioak. Hamazazpi argitaletxe eta 52 metro mahai, zenbakitan esanda. Eta karpa estuan atzera eta aurrera, tarteka jende erreka eta tarteka soilguneak. Hasiera bat zen, xumea bezain goxoa.

(Euskararen)

Iturri Zaharrean haurren ikusgarria

Mimo handiz prestatzen du Maddi Zubeldiak haurrentzako ipuin kontaketa berezia. Iaz egin zen lehen aldiz: “Gure nahia zen euskarazko ekitaldi baten inguruan Ziburuko eskola guztietako haurrak elkartzea. Eta bestalde, haurrak azokara erakartzea. Horretarako sortu genuen ipuina, eta haurrek ipuin kontaketa zehar kantu bat kantatuz hartu zuten parte”. Iazko arrakasta ikusita, aurten ere prest dute haurren ikusgarria.

Aurtengoak lau urtaroak izango ditu gai: “2019an ipuin musikatu bat sortu genuen. Testua idatzi nuen eta Xano Halsouetek musika jarri zion. Pentsatu genuen aurtengorako ipuin hori birmoldatu eta txotxongiloen laguntzaz ematea, bisualagoa izan dadin, euskara maila oso ezberdina baita ikasleen artean. Bernadette Lurok antzetzuko du eta haurrek parte hartuko dute eskolan landu duten kantua kantatuz”.

Lau urtaroak zeharkatuko ditu *Ama Lurrak pausa behar du* ipuinaren hariak eta Halsouetek honentzako sortutako musika elektronikoa da ipuina kontatu artean entzungo den soinu banda. Haurrek tartean eskusoinuaren eta kitarraren laguntzaz emango dituzten kantuak lau urtaroetara lotuak dira, euskal kantutegian aski ezagunak direnak.

Zubeldiak hasieratik argi izan du Iturri Zaharrean plazan egin behar zela haurren ikusgarria: “Ziburutarrentzat oso leku magikoa da eta ez zaio aski zuku ateratzen leku horri. Ikusgarriarako oso egokia da, plazatik hurbil izanik ere aparte dagoen txokoa da, badu bere nortasuna eta soinua ongi ateratzen da. Iturriaren bueltan jendea biltzeko lekua da. Eta sinbolikoki adierazten du iturri beretik edaten jarraitu behar dugula, iturri zaharretik, eta beraz, euskararen transmisioan dugun erronkarako leku aproposa da”.



Iaz egin zen lehen aldiz ipuin kontaketa, Iturri Zaharrean. Maddi Zubeldia: “Txoko magikoa da eta euskararen iturri zaharretik edaten jarraitzen dugula adierazi dezake”.



Ziburuko Baltsan elkarteko kideak: "Euskarazko ekoizpenak plazara ekarri zendeari proposatzen diogu Euskal Herri euskaldun batean bizitzea egun batez".

Pandemiak eten zuen azokaren harria urtebetez, eta 2021ean egin zen bigarren edizioa. Lehenaren oroitzen politak, itxialdiaren osteko kale-egariak eta euskara jende artean aurrez aurre elikatzen denaren kontzientziak ekarri zuten parte-hartze sendoa, bai argitaletxe kopuruan eta bai ikusleen aldetik ere. 22 argitaletxe eman zuten izena eta 62 metro mahai behar izan ziren haien erakusgaiak paratzeko. Egun osoan ibili zen jendea mahairik mahai plaza osoa estaltzen zuen karpa barruan eta karpatik kanpo ere plazan giro aparta egon zen.

Hirugarren azoka honetan parte hartuko duten argitaletxeen kopuruak gora egin du berriz: 33 izango dira eta 92 metro mahai osatuko dituzte denek artean.

BEDERATZI IDAZLEREN HITZALDIAK ETA KULTUR EMANALDIAK

Azoka goizeko 10:00etatik iluntzeko 19:00etara egongo da zabalik, indarrak hartzeko 13:00etik 15:00era itxiko bada ere.

Egun osoan izango dira kultur emanaldiak: Janbattit Dirassar eta Amaiur Epher idazleen arteko solasaldia 10:15ean;

“

“Nazionala izatea nahi dugu bai antolatzaileen aldetik, bai argitaletxe eta idazleen aldetik eta baita publikoaren aldetik ere”

Ladix Arrosagarai
Baltsan elkarteko kidea

haurrentzat ikusgarria 10:30ean; bertsoa eta komikia bat-bateko jardunean uztartzen dituen bertsoZirriborroka 12:30ean, zeinetan bertsoan arituko diren Miren Artetxe eta Igor Elortza eta marrazten Axi eta ZaldiEroa; Ni banna irlandar folk taldearen emanaldia

13:30ean; Pantzo Irigaraireren umorezko bakarrizketa 15:15ean; eta eguna biribilduko duen Adar folk taldearen kontzertua 20:00etan.

Azokaren ondoan paratuko den beste karpa batean liburu aurkezpenak izango dira. Guztira 9 sortzaile, Euskal Herriko kolore guztietako lanak aurkeztuko dituztenak: 11:30ean Asel Luzarragak *Esan gabe doa* nobela aurkeztuko du; 12:00etan Lizar Begoñak *Gepardo japoniarrak* olerki bilduma plazaratuko du; 15:45ean komikiaz arituko dira *Arranotxu*-ren egile ZaldiEroa eta *Sasi artean Elgeta*-ren egile Koldo Izagirre, Garluk Agirre eta Dani Fano; 16:30ean itzulpenaz mintzatuko da *Austerlitz* liburua euskaratu duen Idoia Santamaria; 17:15ean *Sendabelarre* *dakitena* liburuarren egile Garbiñe Larrea gaiaz mintzatuko da; eta 18:00etan Jokin Urainek *Txomin Aurrera Bolie* liburua izango du mintzagai.

ZER DIOTE ARGITALETXE ETA DISKOETXEEK?

Xabiroi aldizkariaren arduratzen da Dani Fano komikigile eta editorea. Ziburuko Azokaren lehen edizioan egon ziren, iaz ere bai eta aurtengoan ere pozik joango direla dio.

Azken urteetan euskal komikiak garai onak bizi ditu eta azoketan ongi mugitzen direla dio Fanok: "Gutxienez, bada euskarazko komiki gosea". Bere esanetan, harreman polita sortzen da gune horietan, lanak sinatzen dira, irakurlearen aurrean marratu... "eta giroa ederra da". Pozik iaz eta itxaropenez da aurten: "Salmenta ona egin genuen iaz eta aurten ere ongi ibiltzea espero dugu". Ziburukoa komikilarientzat plaza berezia dela dio: "Ongi zaintzen gaituzte. Hor daude antolakuntzan Adur Larrea eta Ladix Arrosagarai, biak ere komiki munduari lotuak. Beraz, leku on batera joango gara Ziburura".

Baga-Biga diskoetxea iaz egon zen Ziburuko Azokan eta aurten ere han izango da, temati. Diskoetxeko Ritxi Aizpuruk dioskunez, iaz ez zuten saldu: "Esperientzia txarra izan zen alde horretatik, baina diskoetxeek eta argitaletxeek halako ekimenak bultzatzen ez baditugu nork sustatuko ditu? Kulturak behar ditu halako ekimenak".

Ezaguna den gisan, CDen salmentak gainbehera handia bizi du aspalditik, "2010etik-edo gero eta gutxiago saltzen da", diosku Aizpuruk. Diskoetxeek euren burua berrasmatu behar izan dute eta haien jardunean, gaur egun egiten duten zeregin handiena kontzertuen kudeaketa da: "Diskoa batez ere aurkezpen txartela da, gastuen ikuspegitik ez du bere burua estali ere egiten".

Garai zailak bizi ditu musika ekoizpenaren salmentak, eta sektorean ere adi dira, "ea musika zein euskarrirantz joango den ikusteko". Baina ez da Ziburuko azoka bakarrik, iaz Durangoko Azokan egin ziren murrizketekin, musikak ez zuela saldu azaldu du Aizpuruk, "eta hala ere, egon egin behar da".

Baltsanek aurten lanketa berezia egin du diskoetxeekin, haiekin elkartuta. Iaz argitaletxe gutxi izan ziren azokan eta aurten hamar diskoetxe edo autoekoizle bertaratzea lortu dute. "Horiek denak batera egongo dira azokako gune batean, argitaletxeen artean sakabanatu ez daitezen", adierazi du Arrosagarai. Musikariek diskoez gain kamisetak, afixak eta gainerakoak saldu ahalko dituzte, haien zaleengandik babes ekonomikoa jasotzeko beste modu batzuk baitira.

Idazleak, musikariak, argitaletxeak, diskoetxeak, Baltsan elkarteko kideak, ARGIAko langileak, denak Ziburuko plazan izango dira ekainaren 4an, eguna gozatzeko gorputzaldiarekin. Eta zuk, zer asmo duzu egun horretarako? ●

Joanes Etxeberri

Ziburuko lehen idazlea eta euskal pizkundeko bertso jartzaile ahantzia

Maiatzaren 4an hitzaldia antolatu zuten Baltsan elkarteak, Maiatz argitaletxeak eta ARGIAk. XVII. mendearen lehen erdian, euskal literatura pizkundean Axular eta Argaiñaratz idazleekin batera aritu zen Joanes Etxeberriren lana azaldu zuen Céline Mounole-k: "Berau ezagutarazteko helburua du gaurko hitzaldiak, herrian ahantzia baita. Ontsa litzateke karrika, plaza edo auditorio on bat izatea Ziburuk Joanes Etxeberriren izenarekin", proposatu zuen Herriko Etxean adi zituen 30 entzuleen aurrean. Euskaltzale orok ere ezagutu beharrekoa da, euskara eraman baitzuen "erdaren gainera".

Etxeberriri buruz dauden datu urriak eman zituen ikerlariak: "1580. urte inguruan jaio zela dirudi eta 1638. urterako zendu izanen zela. Familia aberatsekoa zen, jesuitetan ikasia eta Teologian doktorea. Badakigu hark idatzitako gutunak bazirela, baina gaur arte heldu diren bakarrak haren hiru liburuak dira: Manual debozionala (1627), Noelak eta bertze kanta espiritual berriak (1630) eta Elizara erabiltzeko liburua (bigarren edizioa 1665ekoa)".

Mounolek azaldu zuen kontraerreformaren testuinguruan eta elizak sustaturik loratu zela euskal pizkundeko liburugintza oparoa Saran, Lapurdin eta Donibane Lohizunen, baina orduan ere hizkuntza gatazka bizi zutela eta euskal idazleek elizako eta herriko jende boteretsuen babes eskatzen zutela liburuen sarreretan, jaso zitzaireten erasoetatik babesteko.

Osoki bertsoz idatzi zuen Manual debozionala liburutik hainbat pasarte irakurri zituen

Mounolek. Irakurlea hunkitu eta fedearen arrastoan sartzea helburu zuen Etxeberririk, eguneroko bizitzako egoera zehatz bakoitzera-ko kantatzeko moduko bertsoak idatzi zituen. "Baina ez da otoitz sinpleak egitera mugatzen, irudi anitz erabiltzen ditu, erretorika handiko testuak dira". Arrantza-leentzat berariaz idatzi zuen lanaren zati handi bat. Bale arrantzak indar handia zuen garai hartan Ziburun, eta hona haientzat idatzi zituen bertsoak:

*Jauna, geure arte baino
gehiago zureaz,
Balea zauritu dugu
arpoinaren kolpeaz.
Arren bada egiguzu
(Jaun puxanta) grazia,
Sarri gelditzeko arrain
Itsasoko handia.
Gutarik garabik zauritu
gabe bere indarraz,
Segadetan dabilala
buztan edo bularraz.
Edo txalupa irauli gabe
kilaz gainera,
Edo berekin eraman gabe
uretan behera.
Arren begira gaitzazu
gaitz hauek guztietarik,
Eskerra diezazugun itzul
lehorrerarik.
Irabazia da handi,
perila ere handia,
Begira diezazugu
printzipalki bizia.*

Hitzaldiaren kronika osoa ikusgai interneten, kanal honetan: argia.eus/ziburuko-euskal-liburu-eta-disko-azoka

“ ”

Tamalez, askotan errazagoa da gerra egitea

Alberto Pinzón eta Alexander Ugalde

Kolonbiak pasa den urtean bitzako eztanda sozialaren erdian argitaratu zuen Alberdaniarekin Freytter elkarteak *Confieso que he cumplido con la amistad* (Aitortzen dut, laguntasunarekin bete dut). Alberto Pinzón mediku eta militante historikoaren ibilbidea laburbiltzen duen biografia da. Hauteskunde presidentzialen atarian (maiatzaren 29an lehen itzulia eta ekainaren 19an bigarrena), liburuaren egile Alexander Ugalderekin (EHU) eta protagonista Albertorekin bildu gara liburuaz eta herrialdearen gaurkotasunaz hausnartzeko.

 XUBAN ZUBIRIA  FREYTTTER ELKARTEA

Kolonbia joan eta etorri egiten da titularretatik, baina herrialdeak bizi duen salbuespen egoerak bere horretan dirau. Hori izan da liburuaren egitearen arrazoa?

Alexander Ugalde: Kolonbia sakon aztertzea baino, gure asmoa zen Albertoren izatea balioan jarriko zuen lan biografikoa egitea, eta hein batean lortu dugu. 1945ean Kolonbian jaio zenetik 2002an Alemaniara ihes egin zuen arte herrialdean gertatu zenak zipriztintzen du liburuak. Deskribatutako egoera personal bakoitzean, Kolonbian eta batzuetan Amerikan gertatzen ari zena testuinguruan kokatu behar izan dugu. Eraitza testu misto bat da, Albertoren biografia eta haren ingurunea deskribatzeko saiakera uztartzen dituena.

Alberto, zu Bogotan jaio zinen, 1945. urtean. “Indarkeriaren garaia” gisa ezagutzen dira urte haiek. Baina

indarkeria ez da inoiz desagertu.

Alberto Pinzón: Indarkeria politikoak maldizio *garciamarquianoa* zirudien orduan, eta hala dirudi oraindik ere. XIX. mendean Kolonbiak bederatziz gerra zibil biparditista sufritu zituen. XX. mendea bide beretik hasi zen, eta milaka hildako utzi zituzten liberalen eta kontserbadoreen arteko gudek. Boterea hartzen zuen alderdiak galtzailea zapaltzen zuen sistematikoki. Horregatik deitu zitzaizkien urte haiei “indarkeriaren garaia”. 1957an aldatu zen hori, bi aldeek Fronte Nazionala eratu zutenean.

Errepresioak eta miseriak jarraitu zuten, ordea. Hamarkada bat geroago gataska kolorez aldatu zen. Jada ez zen liberalen eta kontserbadoreen arteko guda fratrizida, baizik eta, miseriari eta lur-jabe handien errepresioari aurre egiteko, ikuspegi marxista iraultzailea zuten hiru gerrillak estatuari deklaratu zitoten gerra.

Antropologia ikasketak egin zenituen Bogotako unibertsitatean. Gazte murgildu zinen Kolonbiako alderdi komunistaren gazterietan. Orduan ezagutu zenuen Guillermo León Sáenz. Militantzia laguna, geroago FARC-EP gerrillaren komandantea bilakatuko zena.

A. Pinzón: Gazteak ginen eta eferbeszentzia politikoa bizi zuen herrialdeak. Unibertsitatean denetik zegoen: sozialismoaren aldeko kristauak, troskistak, maoistak, anarkistak... Ni, baina, mugimendu komunistan murgildu nintzen. Helburuak lortzeko borroka armatua erabiltzeari buruzkoa zen orduko eztabaida nagusia.

Atmosfera hartan ezagutu nuen Guillermo. Hasieratik laguntasun pertsonal, militante eta akademiko handia garatu genuen. Hala sortu genuen unibertsitate mailako *Rojo* aldizkaria. Ezkerreko gure aurkari ideologikoez berehala erosten



zuten, gure tesiei aurka egiteko. Hainbat eztabaida eta hausnarketa plazaratzeko balio izan zigun. Baina bide desberdina hartu genituen ostean. Ni politikatik urrundu nintzen, medikuntzako ikasketak amaituta gaztetako bokazioari ekiteko. Bistan da Guillermok beste bide bat hartu zuela.

1986an Bogotan mediku lanetan ari zinela Guillermoren mezu bat jaso zenuen. Sumapazeko mendietan elkartu zinen berarekin, FARC-EP gerrillak Belisario Betancurtek zuzentzen zuen gobernuarekin zituen bake elkarrizketen baitan.

A. Pinzón: Eskaerari baiezkoa ematea nire lagun eta burkidearekiko konpromisoa hartzea izan zen. Sumapaz inguruetan zegoen Casa Verde gerrillaren gotorlekuan topatu genuen elkar, eta bi aste gelditu nintzen bertan. Egun haieran aitortu zidan ezkerreko sektore askok bizkarra emana ziotela gerrillari.

“ ”

Botere Blokeak ez dit inoiz barkatu soluziobide politikoaren alde egindako lana

Alberto Pinzón

Soluzio politiko bat bilatzeko aukeren gainean hausnartu genuen. Baina gauzak ez ziren nahi bezala gertatu: 1990. urtean Cesar Gabiria presidente aukeratu berriak Kolonbia Operazioa jarri zuten martxan Casa Verde eta FARC-

EPren komandantzia suntsitzeko. Hala ere, bake saiakera hark baldintzak sortu zituen Unión Patriótica mugimendua indartzeko.

Estatu aparatuek berehala egin zuten Unión Patrioticaren aurka. Giro nahasi hartan Andres Pastranaren gobernuaren eta FARC-EPren arteko Caguaneko Bake negoziazioetan parte hartu zenuen (1998-2002), Pertsonalitateen Batzordeko kide gisa.

A. Pinzón: Sumapazeko konpromisoa hartzeaz gain, batzordeko aukeraketan eragina izan zuen nire ibilbide akademikoak ere, liburuan laburbiltzen denak. Ordurako argitaratuak nituen antropologia arloan Kolonbiako jatorrizko herriei buruzko zenbait lan, baita medikuntza arloan ere. Uste dut nire lan intelektual horrek eta Alfonsorekin nuen laguntasunak bultzatu zutela FARC-EPren komandantzia nire izena proposatzera.



Caguaneokoak ere porrot egin zuen. Bidean atentatu bat sufritu zenuen eta Alemanian errefuxiatuta bizi zara ordutik.

A. Pinzón: Tamalez, askotan errazagoa da gerra egitea. Batez ere pentsamolde gerrazale nagusi bat gailentzen denean. AEBak bezalako potentzia inperialista baten laguntza zorrotza duenak, era guztietako baliabideekin, gerra erabili ohi du interes ekonomiko, politiko eta ideologikoak inposatzeko; Kolonia ez da salbuespena. Egoera iraultzen saiatu diren milaka koloniar hil dituzte, eta beste askok herrialdea utzi behar izan dugu. Gaur, 2022an, oraindik mehatxuak jasotzen ditut mugikorrean. Argi dago Bloque de Poder Contrainsurgente deritzonak (Botere Blokea) ez didala inoiz barkatu soluziobide politikoaren alde egindako lana.

Botere Blokea aipatu duzu. Liburuan luze hitz egiten da horren inguruan, eta “doktrina militarra” deritzana aipatzen da hainbatetan.

A. Pinzón: Kolonbiako langileriak eta klase subordinatuek egunerokotasunean pairatzen duten fenomeno da.

Kolonbiako botereek Bigarren Mundu Gerratik hona AEBetan egituratutako doktrina militarra ezarri dute. Doktrina militarra Hego Amerikako zenbait herrialdetan aplikatu dute Gerra Hotzetik hona, eta arrakasta izan dute. Errepresioa soluziobide, Kolonbian ideologia politiko bilakatu da doktrina militar hori. Horren bidez koloniar gizartea interes jakin batzuen arabera menperatzen dute. Jakina, erasotuen eta biktimizatuen erantzuna ere sortzen du.

Momentu honetan posible da gizarteko esparru progresistetatik bloke eta ideologia politiko horri aurre egitea? Pasa den urteko eztanda soziala izan liteke adibide bat?

A. Ugalde: Pasa den urteko mobilizazioen ostean ikasle eta mugimendu sozialek jasandako errepresioak agerian utzi zuen hori guztia. Frontea osatu da, borroka heroikoa egin da, orain eta lehen, baina emaitza, aitortu beharra dago, erabat desberdina da. 2016an sinatutako bake akordioa apenas bete da. Sei urte geroago, balantzea etsigarria da. Azken urteetako bilakaera hori aztertu

“ ”

Gauza bat da parlamentua eta gobernua bereganatzea eta beste bat estatuaren egiturak aldatzea

Alexander Ugalde

nahi duen liburu bat ari gara prestatzen, hainbat herrialdetako adituekin, eta datozen hilabeteetan argitaratuko dugu.

Alexander, azken argitalpenak Freyter elkartearen helburu eta balioekin bat egiten al du?

A. Ugalde: Elkartearen helburu argi bat da Kolonbiako gatazka politiko, sozial eta armatuaren zenbait alderdiren me-



moria historikoa berreskuratzea, eta hainbat ekimen egin ditugu 2012an Bilbon sortu genuenetik. *Confieso que he cumplido con la amistad* lanaren argitalpena da egin dugun ekimenik ambiziosotsuenetako bat. Elkartearen sustatzaile Jorge Freyterren ezinbesteko laguntzarekin osatu dugu.

Zergatik Alberto?

A. Ugalde: Albertok hogei urte daramatza erbestean, eta Freyter elkarte sortu genuenetik maiz gonbidatu dugu ekitaldi eta hitzaldietara. EHUko ekitaldi baten ondoren kontaktu zigun Caguaneko elkarriketa prozesuan 2002an jasan zuen atentatua. Horren ostean Alemaniako enbaxadorearen laguntzaz Kolonbiatik ihes egitea lortu zuen, eta ordutik Alemanian bizi da.

Elkartean beharra sentitu genuen atentatuaz gain bere bizitzan izandako hainbat esperientzia biltzeko. Dokumentatutako narrazio historikoari Albertoren ahozko eta hitzezko lanak gehitu dizkiogu, pasarte bakoitzaren bidez irakurlea Albertoren ibileretan murgiltzeko. Kolonbiako gatazka kontatzeko beste modu bat ere bada liburua.

Gainean ditugu hauteskunde presidentzialak. Gustavo Petrok zuzentzen duen fronte progresista lehena ageri da inkestetan. Aldaketa etorriko da Kolonbiara? Aldaketak izango du behar bezainbesteko indarra egoera iraultzeko?

A. Ugalde: Gauza bat da parlamentua eta gobernua bereganatzea eta beste bat estatuaren oinarrizko egiturak aldatzeko indar nahikoa izatea. Batzuetan ezkerreko indarrak –pluralean hitz egingo dut, anitzak baitira– iristen dira gobernuetara baina aldaketak ez dira sakonak edo iraunkorak: Lula Da Silva edo Dilma Rouseff Brasilen, Rafael Correa Ekuadorren... Perun ere kudeaketa nahiko eskasa izaten ari da. Kolonbian gauza bera: nahiz eta Itun Historikoa koalizioak irabazi, zalantza asko dut gertatu daitekeenaren gainean. Koalizioa indar nahaspila bat da, eta ez dakit nola konponduko dituzten kontraesanak politika erabakigarriak aplikatzerakoan. Gustavo Petro ez da lepoa jokatzen duen politikari bat. Albertok kamaleoitzat du Petro, eta, jakina, Botere Blokeak oposizio gupidagabea hedatuko du haren eta aldaketaren aurka. ●



mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Liburu bat katean idatzia

Bilbotik Tafallarako dagoen bidean, eskuz esku eta ikastolaz ikastola idazten ari den ipuina da aurtengo Liburu Ibiltaria. Idazleek ez dute elkar ezagutzen eta eremu soziolinguistiko desberdinetako ikasleak dira, baina asmo komun bat dute denek: guztien artean, txandaka, euskara ardatz duen liburu bat idaztea.

 JONE GARTZIA GERRA  ABUSU IKASTOLA

Hirugarren edizioa du aurtengo Liburu Ibiltariak. 2020an izan zuen lehena, Elorrioko Txintxirri Ikastolaren ekimenez. Haiei zegokien pandemiak astindutako urtean Ibilaldia (Bizkaiko Ikastolen Jaia) antolatzea, eta, alternatiba gisa, ikastolaz ikastola osatzen joango zen liburuaren ekoizpena proposatu zieten Bizkaiko gainerako ikastolei.

20 orrialdeko liburua osatu zuten orduan, elkarlanean eta euskara istorioa josteko hari gisa baliatuta. Helburua eremu soziolinguistiko desberdinetako kideak elkartzea zen, eta, ezin zutenez aurrez aurre egin, papera izan zuten elkargunerako tresna. *Lingua Vasconum Resucitae* jarri zioten izenburua eta bertan gure hizkuntzaren gorabeherak jaso zituzten.

Hurrengo urtean, pandemia egoera lausotzen joanagatik ere, ekimenarekin jarraitzea erabaki zuten, orduan Ikastolen Elkartek egitasmoa bere gain hartuta eta Euskal Herriko gainerako ikastoletara zabalduta. Ikastolak Herriari ekimenaren baitan, Sopolatik Lizarrarako bidea egin zuen 2021eko Liburu Ibiltariak, poliki-poliki.

Orduko edizioan, Euskal Herriko 21 ikastolatak DBH 3ko ikasleek hartu zuten parte sorkuntza prozesuan, boluntarioki. Narrazio komunitarioari hasiera ematearen ardura Sopolako Ander Deunako eta Leioako Betikoko ikasleen esku egon zen, ikastola horien artean antolatu baitzuten, hain zuzen ere, iazko Bizkaiko Ikastolen jaialdia. Amaiera, kontrara, lizarrratarrek eman zioten, haiek hartu zutelako herrian Nafarroako Ikastolen jaialdia, 2022ko Nafarroa Oinez.

*Euskal Herriko eremu
soziolinguistiko
desberdinetako
partaideak
elkarlanean jarri
nahi dituzte
euskaraz ondo pasa,
esperimentatu eta
sormena lantzeko*

250 URTE BARRU...

Norabide berari jarraiki, 2022ko edizioa abiatzea Abusuko ikastolako ikasleei egokitu zaie, bertan ospatuko baita datorren maiatzaren 29an Ibilaldia. Bi irakasleren gidaritzapean, 11 ikasle boluntariok egin zuten lan hori iragan abenduan, Euskararen Egunean. Bazuten eskarmentua, ekimenean parte hartzen zuten hirugarren aldia zelako, baina ipuinaren hasiera idazteko ardura zuten lehenengo aldiz.

Hori dela eta, sorkuntza prozesuko erronka handiena abiapuntu aski zabala idaztea izan zen, ondoren lekukoa hartuko zuten 27 zentroetako ikasleek istorioarekin jarraitzeko modukoa. Bi irakaslek hartu zuten prozesua gidatzeko ardura: Teresa Zarragak eta Jon Aritz Bengoe-


txeak. Liburu Ibiltarian parte hartu nahi zuten ikasleak batu zituzten eta hastapeneko ideiak batzen hasi ziren. Ondoren, bikoteka erabaki zuten zein izango zen istorioaren abiapuntua eta haria.

Behin horiek zehaztuta, ideia idatzi eta marraztu behar izan zuten. Izan ere, Liburu Ibiltarian parte hartzen duen ikastola bakoitzak bi zatitan banatutako orri bana jasotzen du. Goian testua idatzi behar dute, eskuz, eta behean irudia osatu (izan marrazkia, komikia, collagea...), irakurri ezin dutenentzat.

Abusuko ikasleek istorioa 2275. urtean kokatzea erabaki zuten, abenduaren 3an, hain justu. Olatz eta Amets dira Abusuko ikastolaren izenean parte hartu duen 11 lagunetako bi, eta haiek eman digute istorioaren berri. Kontatutakoaren arabera, bi neba-arrebek errota bat topatu zuten Abusu auzotik gertuko baso batean. Bertan, "Ikastola" hitza irakurri zuten, baina ez zuten esanahia ulertzen. Errota barruan kutxa bat topatu zuten, goiko aldean "euskara, denbora kapsula" idatzita zuena. Orduan, aurkitutakoa amamari eramatea erabaki zuten, eta hor bukatzen da narrazioari hasiera ematen dion lehen pausoa. "Euskararen erabilerarekin lotuta dago, agian, 2275. urtean euskara desagertuta egongo da", azaldu dute idazleek.

EUSKALGINTZARENTZAKO BESTE EREDU BAT

Ikastolak Herriari dinamikaren baitan, ikastolen jaiek erakutsi nahi dute "euskaraz bizi, pentsatu, dibertitu, sortu... munduratzen" ari direla. Praktika honekin, Euskal Herriko eremu soziolinguistiko desberdinetako partaideak elkarlanean



jarri nahi dituzte euskaraz ondo pasatu, esperimentatu eta sormena lantzeko, baita elkarlana sustatzeko eta Euskalgintzari "beste eredu bat" emateko ere.

2022ko edizio honen sorkuntzan 28 ikastolek hartu dute parte. Abusun hasitako kontakizunari Tafallako Garcés de los Fayos Ikastolan emango diote bukaera. Hori baino lehen, lehenengo bost ikastolek sarrerako orriak beteko dituzte, hurrengo hamaseiek garapena osatuko dute eta azken lau ikastolek amaiera biribilduko dute. Bakoitzak astebeteko epea izango du Liburu Ibiltaria jaso, bere orrialdea bete eta hurrengo ikastolari emateko.

Iragan abenduan hasitako ipuina osorik irakurtzeko, urrira arte itxaron behar da. Tafallan ospatuko den Nafarroa Oinez jaialdian jarriko dituzten paneletan egongo da lehen aldiz kontakizun osoa

irakurgarri. Abusu ikastolako ikasleak egun horren zain daude, irrikaz. Badakite zelan hasi den istorioa, baina garapeneren eta bukaeraren arrastorik ez dute, "sorpresa bat izango da".

Behin liburua amaituta, prozesuan parte hartu duen ikastola bakoitzak kopia txiki bana jasoko du. Izan ere, Liburu Ibiltaria tamaina handikoa da, argazkian ikus daitekeen bezala.

IBILALDIA, BERTAN

Nolanahi ere, abusutarrek tartean badute ilusioz betetzen dituen beste egitasmo garrantzitsu bat: 2022ko Ibilaldia. Haien ikastolari egokitu zaio aurtengo jaialdia prestatzea, eta ospakizun handirako egun gutxiren faltan, urduritasuna eta poza nabariak dira haien aurpegietan. "Polita izan da, guraso, irakasle, familia, ikasle... asko

jarri gaituelako elkarlanean", azaldu du Teresa Zarragak. Batzorde ugari sortu dituzte eta horietako batzuk ikasturte hasieratik ari dira lanean maiatzaren 29an dena ondo joan dadin. Ez hori bakarrik, urtean zehar kultur arloko hainbat eta hainbat ekintza ere antolatu dituzte ikastolan eta auzoan, eta "denak oso arrakastuak" izan direla dio irakasleak.

Ikasle zein irakasle, denek jendetza espero dute maiatzeko azken igandean. Pandemia osteko lehen Ibilaldia izanik, Herri Urratsen arrakastari eutsi nahi diote. Bi urteko etenaldiaren ondotik, gogotsu sumatzen dituzte ingurukoak, eta hala daude haiek ere. Urrira bitarteko itxaronaldia arinagoa bihurtzen lagunduko die, seguru, eta akaso, ipuin xeble honetan parte hartu duten beste kideak ezagutzeko parada ere izango dute. ●

MAIATZAK 29

IBILALDIA 2022

ABUSU IKASTOLA

ibilaldia.eus



Gerrako euskal haur bat berpiztu da Georgian



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Tbilisi (Georgia), 1991. Martina Mintegui Bilbao hil zen, 65 urte zituela; senarrarekin, Guivi Guichaisvili idazlearekin batera, hantxe dago ehortzita.

11 urte zituela eraman zuten Martina Euskal Herriko Sobietar Batasunera. 1937ko udaberrian, Durango eta Gernika bonbardatuta, Mola jeneralak erasoaldia abiatu zuen eta iparraldeko frontean egoerak nabarmen egin zuen okerrera: aurreko urtean sortutako Eusko Jaurlaritzak, gurasoen baimenarekin, 3 eta 14 urte bitarteko haurren ebakuazioa antolatu zuen hainbat estatu adiskidetakoa gobernuekin. Frantziara 15.000 haur euskaldun inguru eraman zituzten, Erresuma Batua ia 4.000 eta Sobietar Batasunera, 1.500 inguru –Francisco Largo Caballero fundazioaren arabera, 1.495 izan ziren, baina Errusiako Gurutze Gorriak, aldiz, 1.765 haur izan zirela dio–.

Frantzia, Belgika edo Erresuma Batua eraman zituzten haur gehienak ez ziren erbestean luzaroan egon; Bigarren Mundu Gerra piztu zenean itzuli ziren etxera. Baina SESBek aktiboki parte hartu zuen 1936ko gerran, errepublikarren alde jardunez eta, ondorioz, “Errusiako haurrei” ez zieten itzultzeko aukerarik eman. Martinak bezala, askok bizi gutxia emango zuten erbestean. Eta gerra batetik ihesi joan ondoren, urte gutxira alemaniarren erasoaldia jasatea egokitu zitzaizkien; Euskal Herriko joandako haur



FAVORIT

Ezkerrean, “Errusiako haur” batzuk 1939an. Eskuinean, Martina Mintegui, SESB-era erbesteratutako haur horietako bat. Mintegui liburu batean jaso zituen bere bizipenak eta, berriki, liburua gazteleraz berrargitaratu da. Liburu horretan jasota dago argazki hau.


zaharrenetako batzuk frontera ere eraman zituzten.

“Errusiako haurrak” esaten zaie, asko beste herrialde batzuetara eraman zituzten arren, esaterako, Ukrainara. Martina Mintegui, aldiz, Moskura eraman zuten, Pirogovskaya aterpetxera. Han eman zituen lau urte, beste gerra batek berriro ebakutzera behartu zituen arte. Martina Georgiara aldatu zuten, aterpetxeko gainerako haurrekin batera.

1966an izan zuen Martinak Euskal Herrira itzultzeko aukera. Bisitan etorri arren, Georgiara itzuli zen. Haurtzaroko

oroitzapenak, Euskal Herriko ohiturak, 1937ko ebakuazioa, 1941ekoa... idatziz bildu zituen Mintegui, eta, 1972an liburu batean argitaratu.

Otar Chichinadze mediku eta filántropo georgarrak aitortzen du negar malkotan irakurri zuela lehenengoz Minteguiaren testigantza. Eta 50 urte geroago liburua gaztelerara itzuli du. Favorit argialetxeak kaleratu du *Mi País Vasco* (Nire Euskal Herria) izenburupean. Martinaren alaba Nanitaren hitzetan, “liburua berrargitaratzea gurasoak berpiztea izan da nolabait”. ●



Nor zen Gioconda?

Teoria zabalduenaren arabera, Da Vincik Lisa Gherardini margotu zuen koadro ezagunean, Francesco del Giocondo Florentziar merkatariaren emaztea –hortik datoz *Gioconda* eta *Mona Lisa* izenburuak–. Carla Gori historialariak hipotesia zalantzan jarri du, ez Giocondari begira, atzean duen paisaiari begira baizik. Emakumeak bere ezkerrean duena Trebbia ibaiko Gobbo

zubia omen da, Bobbio herrian dagoena –Piacenza probintzian eta, beraz, Florentzian urrun–. Malaspina del Verme gazteluaren perspektibatik margotu omen zuen paisaia, eta horregatik ondorioztatu du Gorik, koadrokoa Bianca Giovanna Sforza izan behar dela, Bobbioko jaunaren alaba eta Da Vinciren lagun eta mezenas Galeazzo Sanseverinoren emaztea. ●

Vienatik bueltan ezin kabituta

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA



PERU IPARRAGIRRE

ARGIA-ko kideak, hedabide independenteen topaketako hainbat partaide eta antolatzaileekin, Vienako ekonomia eta enpresaritzaren unibertsitate kanpoaldean.

Komunikazio Zientzia Kritikoaren Sarea. Krikowi.net. Nazioarteko talde honek antolatutako *Jabetza, hedabideak*, publikoa jardunaldietan parte hartzeko gonbitea jaso du ARGIAk. Vienan izan dira Lander Arbelaitz Mitxelena, Gorka Bereziartua Mitxelena eta Peru Iparragirre Albisu ARGIAko ordezkari moduan, lehen aldiz Europa mailako konferentzia batzuetan ARGIA zer den eta nola antolatuta eta egituratzen den azaltzeko.

Hiru egunez aritu dira hango eta hemengo adituak beren ikerketak aurkezten mahai-inguru, hitzaldi eta lantegietan, Vienako Ekonomia eta Enpresaritzaren Unibertsitatean, besteak beste, multinazionalen esku dauden plataformak erabiltzeak dakartzen kontraesanek, datuen jabetzaz, ezkerreko hedabideen eginbeharrak eta hedabideak esku gutxiren menpe gertatzearen arriskuaz hausnartu dute. Kokatzeko, irakurle, adibide bat jarri didate

bertan izan direnek: "Austrian, mendialdean, klima aldaketak dena pikutara botatzen duenerako, aberatsentzat egin -eta dagoeneko guztiak saldu- dituzten bunker izugarri batzuen inguruko albistea hedabide desberdinetan nola landu eta tratatu den egin dute azterketa eta horren azalpenak eman dituzte". Hemen ere ongi dakigu erraustegi bati bere izenez deitu edo balorizazio energetikoko planta, oso irakurketa desberdina egin daitekeela.

ARGIAk parte hartu du hizlari moduan *Hedabideen jabetza, kapitalismotik harago* mahai-inguruan, sakonduz, kazetaritzaren moduetan baino, enpresa ereduak, azpimarratuz harpidetza sistema, egitura horizontala, soldata berdintasuna... Ondoan izan ditu Bulgariako *Baricada* hedabidea, Austriako *Orange Radio* irrati librea eta Alemaniako *Jacobin Magazine* komunikabidea. Ez oso martxan hasi zaharrak, denak ere; enpresa txikiak.

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Euskaraz sortutako edukiak paperean irakurri nahi ditudalako, batez ere erreportajeak; geopolitika, hezkuntza edo kulturari lotutako gaietan sakontzeko. Informazio azkarraren eta sintetizatuaren garai honetan, pantaila zaila egiten zait luze irakurtzeko"

Azpeitiko Garazi

"Euskarazko komunikabide independente bakarra delako. Kritikotasuna sustatzeaz gain, ikuspuntu desberdinak ere kontutan hartzen dituelako"

Azkaineko Mikel

ARGIAko ordezkariak kontatu dute kooperatiba moduan funtzionatzen duela enpresak, langileena dela, 25 kidez osatua, eta bertaratuek arretaz entzun dituzte euskaldunen azalpenak. Bukarako galdera asko ere haientzat. Interesa piztu du ARGIAk gonbidatuen artean.

DATORREN ASTEAN ERREPORTAJEA

Europara joandako hiru lagunek, serio planta izan badezakete ere, egin dute parrandaren bat edo beste ere; eta garagardo artean ere sentsazio bera: jardunaldietan dabilen jendea ia miresmenegerturatu zaie gehiago jakin gogoz.

Niri laburpen txiki bat egin didate eta datorren astekean xeheago esplikatuko digute egonaldia, baina kontatu dizkidatenek lagundu didate Boligrafo Gorriaren blogeko azken posta hobeto ulertzen. Hegoak eman dizkiete. Orain, lur hartu eta lanean segitzeko unea da. ●

KUKU-PRAKA TANTAIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Kuku kantuen doinuetan blaitzeko irekitzen ditu loreak kuku-prakak (*Digitalis purpurea*) apiriletik uztaiera artean. Tantai edo mastelero handi baten itxura du bere lorezarrak. Metro eta erdi luzatzen da, baita gehixeago ere. Gehienetan ubel kolore biziko (hortik *purpurea*) lore zintzilarioek errenkada luzea osatzen dute gara tentean. Beheko barrenekoak irekiko dira lehenak, pixkanaka haiek zimeldu ahala goikoak irekiaz. Lore bakoitzak ditare forma ederra du, hortik *Digitalis* izena.

Azkuere ere jaso zuen "titera-lora" forma, ditare-lore alegia. Kuku-praka izenak alde ederreko lurrina du! Astalore edo astolili ere bada; baita sukarbelar ere. Joane-belar ere esaten omen zaio Markina aldean. Azkutai izena ere jaso dago. Xilintxa ere bai, ditare forma horrek ezkila edo zintzarria ere gogorarazten duelako. Kuku-prakarekin batera kuku-lore, kuku-lore gorri, kuku-porru eta baita kuku-belar ere; azken izen horrekin lau-praka eta ama-birjinaren eskularruak eta zeinu-lili ere esaten zaionarekin (*Aquilegia vulgaris*) nahasten da.

Kuku-praka landare pozoitsu da. Pozoitsuak diren landare guztiak bezala, baita sendabelarra ere. Pozoia dosiaren araberakoa da, badakigu. Pozoia den do-



sia baino txikiagoa edo askoz ere txikiagoa sendagarri, osagarri izan daiteke. Kuku-prakarekin horixe gertatzen da. Aspaldi aspalditik ezagunak dira bere osagaiak: glukosidoak, digotixina, gitoxina, digitalina, geninak eta abar. Osagai hauek neurri handi goan izango ditu bizilekuan eguzkia eta hezetasuna baditu. Argizalea da, beti eguzkiak jotzen duen tokietan ageri da, baina ez da berozalea horregatik. Ingurune hezeak, aire hezea nagusia den tokiak ditu gustuko. Botika bezala erabiltzen diren osagai horien kontzentrazioa aldakorra da kuku-prakaren hostoetan. Ugariagoak dira hostoan eguzkiak ematen dion artean; gero desegin egingo dira eta landareak beste

erabilera bat emango die. Goiz partean ia arrastorik ere ez dute izango. Arratsaldearen hasieran biltzen dira hostoak, azpiko aldeko kalterik gabekoak eta lore gararen beheko aldekoak; azpiko hosto zaharrenak eta gararen goiko aldekoak ez hartu. Beti ere lehen loreak irekitzen hasi direnean. Hosto horiek behar bezala lehortzea ere ez da nolana hiko lana: egun bero eta lehorretan sare baten gainean zabal-zabal eginda jarrita edo labe edo berogailuren batean, sekula 45 °tik gora igo gabe. Ondo itxiko den berazko ontzian jasoko da egun bero eta lehorrean, eta bizi zela hainbeste maite zituen argitik eta hezetasunetik urrun mantendu.

Gaur egun kuku-prakaren botika horiek laborategian sortzen dira eta dosiak ederki neurtu eta egiazta daitezke. Garai batean ordea, landarearen osagai horien aberastasuna zehatz-mehatz ezagutzen ez zenez, baso-igel gorriari edota katuari emandako hil arteko dosiekin zehazten zen lagunari eman beharrekoa.

Hemen irakurritakoekin ezta okurritu ere kuku-praka probatzea. Osagarriak diren dosiak toxiko eta hilgarriak diren hurbilekoak dira. Bihotzean gautzen du bere eragin nagusia, beraz, badakizu, ahaztu eta bere loraldiaren dotoreziaz gozatu. ●

ekologikoa, dena hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta
Elkaidura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Babesleak:



IZPILIKU KOSMETIKA NATURALA

“KOSMETIKAN ERE, PRODUKTUEN JATORRIARI GERO ETA GEHIAGO ERREPARATZEN ZAIO”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Orendaingo familia bat dago Izpiliku kosmetika naturalaren atzean. Jarduerarekin modu ofizialean berriki hasi badira ere, proiektuaren erroak duela zazpi bat urte kokatzen ditu Naiara Lizarribar Garmendia kideak: “Amak azaleko arazo asko izan ditu, eta dermatologo batek bestera ibili arren, ez zuen horiek konpontzea lortzen. Horrela hasi zen beretzat xaboiak egiten, behar horretatik”. Amaren jarduera hurbiletik jarraitu du hasieratik Lizarribarrek, eta ikustetik eta ikastetik, kosmetikarena bien proiektu bihurtu dute denborarekin. “Familiako proiektu bat da hau, eta orain aurrean ni banago ere, ama eta ahizpa ere honetan daude”, gehitu du.

Hasiera batean etxerako ekoizpena zena zabaltzen hasi eta jarduera garrantzitsu bihurtu dute urteotan. “Etxerako egin arren, gero eta jende gehiagok eskatzen zizkigun xaboiak, eta gero eta jende gehiago etortzen zen galdezka”, dio proiektuko kideak. Haien produktuak saltzeak zalan-tzak sortzen zizkien hasieran, ez baitzen hori asmoa, baina eskaria eta interesa bazeudela ikusita, pauso bat gehiago ematea erabaki dute duela gutxi: “Oraindik beste lan bat dudan arren, denborarekin honetatik bizitzea da gure asmoa; hori da amaren ametsa, baita nirea ere”.



Xaboiak eta xanpuak egiteko prozesua eskuz egiten dute, artisaun moduan. Duela gutxi, ordea, obradore txiki bat eta produktuak lehortzeko tokia prestatu dituzte. “Xaboiak 40 egun behar ditu lehortzeko. Xanpuak, berriz, egun batetik bestera lehortzen dira, prozesu errazagoa da”.

GORPUTZA ETA INGURUMENA ZAITZEN

Produktu naturalekin egiten dute lan Izpiliku kosmetikan, eta xaboi eta xanpuak egiteko darabiltzaten osagaiak hurbiletik eskuratzen saiatzen dira. “Lorategia

daukagu etxean, eta amak aspalditik ezagutzen du belarren mundua: kalendula, izpilikua... ahal den neurrian etxeko landareak erabiltzen ditugu, oleatoak-eta eginez”, dio Lizarribarrek. Horrez gain, hurbileko denda txikiekin ere badute harremana; Abaltzisketako dendan erosten dituzte olioak, esaterako, eta trukean, haien xaboi eta xanpuak saltzen bertan. “Balerdipeko Erleak proiektukoekin ere harreman handia dugu; argizaria, ezta, polena eta horrelakoak haiei hartzen dizkiegu, eta haiek ere saltzen dituzte gure gauzak”.

Plastikoaren erabilera saihestu alde- ra, kosmetika produktu guztiak solidoan egiteko erabakia hartu zuten Izpilikuko kideek: “Badirudi pixkanaka gero eta gehiago dagoela, baina merkatu azterketa egin nuenean Donostian ibili nintzen xanpu solido baten bila, eta oso zaila zen aurkitzea”. Elikaduraren gaian ematen ari den kontzientziaarekin alderatuta, pauso bat atzerago ikusten du Lizarribarrek kosmetikaren mundua, baina pixkanaka horretan ere aldaketak ematen ari direla sumatzen du: “Azaleko gero eta arazo gehiagorekin dabil jendea, eta esanen nuke hor ere badagoela behar bat eta kontzientziaioa”. ●



“ ”

Nire literaturan bada etengabeko borroka bat terroristaren figura desmuntatzeko

Lander Garro

Errenteriako (edo Oreretako) Pontika auzoan gaude. Mikel tabernan dugu hitzordua Lander Garrorekin, iaz Elkar argialetxearen eskutik publikatu zuen *Faith* nobelaz hitz egiteko. Ingurua asko ezagutu ez arren, badago langile auzo honetan familiarra egiten den zerbait. Bai behintzat Garroren lehen nobela irakurri duenarentzat, kale hauetan baitzebilan *Kontrarioa* (Susa, 2010) eleberriko protagonista. Idazle izateaz gain zinemagilea eta argazkilaria, grabagailua martxan jarri aurretik Dani Blanco ARGIAko argazkilariarekin hizketan aritu da, idazleak prentsan erretratatzeko dituzten moduez. Intelektualen poseaz nekatuta dagoela dio, bera idazle sentitzen dela, ez dela gauza bera. REC.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA  DANI BLANCO

***Kontrarioa* nobelako protagonistak buruan zeukan kontuetako bat zen idazle izan nahi hori.**

Niretzako idazlea da tipo bat askatzen duena bere barrua modu nahiko oinarritzko batez. Azken finean, noiz ikasten dugu idazten? Sei-zazpi urterekin? Idazteko prozesua neurosiarekin lotutako

zerbait da niretzat eta interesatzen zaidan literatura hori da gainera, idazketa pixka bat hautsia, psikologikoa... Idatziko ez banu burutik jota egongo nintzateke, pertsona oso desorekatua naizelako. Behar dut idatzi, nire buruari kontatu nor naizen; horregatik idazten dut *alter ego* batetik beti. Ez dago tranparik,

gutxi gorabehera ni naiz liburu horretan dagoena, baina aldi berean beti dago edertze bat. Hori da idazlearen tranpa, seduzitzeko. Eta horrek intelektualtasunarekin ez dauka hain lotura zuzenik. Alain Badiou edo Michel Foucault, adibidez, idazle mota hori, ideiak ordenatzeko kristoren gaitasuna daukatenak, munduaren obserbazio zientifikoa egiteko... Nik ez dakit hori egiten.

Hain zuzen *Faith* irakurtzen duena protagonistaren buru barruan sartzen da. *Kontrarioa*-ren eta *Gerra txikia*-ren (Susa, 2014) arteko sintesi moduko bat iruditu zait, ez dakit ados zauden.

Bai. *Kontrarioa*-n oso "idazle" nintzen, prosa aldetik askatasuna neukan, pertsonaien aldetik ere bai... Inteligentzia murriztua ez daukan jendea zegoen liburuan eta ez neukan horrelako eragozpenik. *Gerra txikia*-n tokatu zitzaidan haur baten ikuspegia kudeatzea eta sekulako mugak neuzkan, badagoelako literaturan ezinbesteko arau bat: sinesgarritasuna. Ezin duzu jarri ume bat gauza inte-



ligenteegiak pentsatzen. Kristoren lanak eduki nituen horretan, eta *Faith*-en lortu nuen *Gerra txikia*-ko pertsonaiari ematea merezi zuen hegaldia.

Material autobiografikoarekin lan egiteak eramango zintuen kontatzen dituzun gertakariak gogoratzen.

Funtsean, nobelan dauden gertakariak beti dira gertakari mingarri eta traumatikoak, zeinak gero bilakatzen diren nobelaren ardatz. Horretarako memoria bada funtsezkoa. Baina gero, nobela batek eskatzen dizun sintesi ariketa hain da brutal, azkenean dena nobelizatu egin behar duzula. Eta entregatu egiten zara ariketa horretara, inolako konplexurik gabe, fikzioa denez nahi duzuna egin dezakezulako. Esango nuke nire hiru nobelek daukatela fikziotik ikaragarri pila, memoriatik baino askoz ere gehiago.

Gainera memoria oso lausoa da, pentsatzen dugu dena gogoratzen dugula, baina ez da hala. Adibidez, epailearen bulegoa. Pentsa, bada toki bat gogoratzeko modukoa. Edo komisariako sarre- ra. Baina ez duzu gogoratzen ezer. Ezer ez. Badago halako formateatze etengabeko bat, bizitzan gertatzen diren gauzak asimilatu ahal izateko, iraganekoak borraraten dituena. Gehiena asmatua da, salbu eta zure buruari esaten diozula: "Tortura kontatu behar dut, eta atxiloteta, eta...", zuri min handia egin dizuten gauza horiek. Eta salatu nahi dituzunak, bide batez.

Deigarria iruditu zait nobelan horrelako gaiak landuta, nola une batzuetan umorera jo duzun. Ariketa kontzientea izan da?

Ez, ez oso. Politika bere gordinen zure bizitzan sartzen denean gestionatu behar duzu oso handi geratzen zaizun gauza bat, eta hasten zara asmatzen moduak hori kudeatzeko jakin gabe nola egin. Nik beti eduki dut joera hori, txiste bat enkajatzekoa. Badago liburu bat oso interesgarria kontu hau ulertzeko, Ion Arretxeren *Intxaurrondo. La sombra del nogal* [El Garaje, 2015]: atxilotzen zaituztenean zuk daukazuna, batez ere, beldurra da. Eta beldurrari aurre egiteko orduan erabiltzen duzun mekanismoetako bat da bestearekin lotura sortzea. Lotura hori zer da? Sinpatikoa izatea. Horretarako txiste batek baino hobeto ez du ezerk funtzionatzen. Orduan sartzen zara dialektika horretan,



poliziak mina egin ez diezazun asmatzen duzun nolabaiteko hizkera da. Eta uste dut liburuak zehazki hori daukala. Etenik ez daukan dialogo baten emaitza da, ni eta poliziaren arteko elkarriketa bat, ez dakidana nola amaituko den, hor dagoena beti.

“ ”

Pertsonaia bakoitzaren singularitasuna azpimarratzea antidotona da diskurtso deshumanizatzaileen kontra

Nobelako protagonistak, zure alter ego-ak, ez dauka zerikusirik leporatzen diotenarekin. Gatazkaren "albo-kalte" baten istorioa ere bada.

Lehendabiziko aldiz atxilotu nindutenean, kartzelatik atera eta segituan Euskal Herriko Itzulia hasi zen, eta Erlaitzetik pasatzen zen. Joan nintzen karrera ikustera, eta nire bizikleta konpontzen

zuen tipoarekin topo egin nuen. Eta esan zidan: "Ostras, hemen zaude, askatu zaituzte". Eta gero: "Eta nolatan sartu zara zu horrelako mobida batean?". Eta nik: "Ez, ez, nik ez daukat zerikusirik horrekin". Eta esan zidan: "Bai zera, ez dizut sinesten". Nire mekanikaria zen, kristoren harremana neukan berarekin, eta ari zitzaidan aurpegira esaten ez zidala sinesten. Ez zidan txarrera esaten, besterik gabe, ez zidan sinesten. Eta hor konturatu nintzen ze zaila den estigma bat gainetik kentzea. Nire literaturan etengabeko borroka hori izan dela uste dut: nola desmuntatu Espainiako kuartelen batean pentsatu eta eraikitako terroristaren figura. Nola erakutsi zer dagoen horren azpian. Zeren terrorista gezur bat da, propaganda militarra, pertsonak deshumanizatze ahalegina. Eta niretzat horren kontrako antidotorik interesgarriena da detailea, singularitasuna. Erakustea pertsona bakoitza dela singularra, bera den modukoa dela.

Jazarpen-giroak presentzia handia dauka nobelan. Egunerokotasunarekin etengabe gurutzatzen da.

Hori bizi izan nuen Bartzelonan, pixka bat zientzia-fikziozkoa iruditzen zait.

Elementu dramatiko oso interesgarria da, eta aldi berean niretzat inportantea da. Horregatik, hori kontatzeko orduan garrantzitsua zen niretzat fin kontatzea, saiatzea ulertarazten irakurleari nola filtratzen den horrelako gauza bat zure egunerokotasunean, nola bilakatzen den elementu bat hor dagoena, bat-batean desagertu egin daitekeena eta bizitza normal samar bat egiten uzten dizuna, baina gero gogoratzen duzuna...

... eta oreka minimo batekin bizitzen uzten ez dizuna.

Hori da. Da modu bat esplikatzeko ze erraza den estatuarentzat edo bote-rearentzat. Noraino den jolas txiki bat haientzat. Zure atzetik hasten dira, gero desagertu egiten dira, gero berriro datoz... Eta zu kaka eginda zaude. Behin eraman zaituztenez, badakizu izugarri zaugarria zarela. Eta zure eguneroko gauza txikiak bilakatzen dira izugarri inportanteak, dena bizitzen duzu azkeneo aldia balitz bezala.

Liberazio momentu batzuk ere sartu dituzu, nolanahi ere: Jean-Luc Godarden *Bande à part* (1964) filmeko korrikaldi ezagunaren antzeko eszena, adibidez, poliziarengandik ihesi. Iradoki didan mezua da: "Jazarpena eta kontrola hor dago, baina dena ez daukate irabazita". Ideia hori ere zabaldu nahi izan duzu?

Bai, batzuetan lortzen duzu izua menperatzea eta bizitzea. Eta liburua bere osotasunean bada hori ere, nola tipoa Bartzelonara doan eta, ahal dueneraino, bizitzari zuku guztia ateratzen dion: proiektu bat dauka, erakusketa bat egitera doa, dokumental bat egin nahi du... Nola edo hala saiatzen da bizitza gailendu dadin, eta hori oso inportantea da. Badirudi errepresioaren atzaparretan eroritako jendeari dagokion bakarria sufrimendua dela. Eta interesgarria da erakustea nor bere modura diferentea den jende horrek guztiak asmatzen dituela trikimailuak bizitzeko, maitatzeko, maitatua izateko... Logika horren guztiaren barruan kultura oso inportantea da, zinemara joatea, kontzertu batera, liburu bat irakurtzea... Gauza horiek funtsezkoak bihurtzen dira.

Iruditu zait eskuzabaltasun ariketa bat ere egin duzula protagonista jazartzen duten poliziekin. Xabik haien alde pertsonala imajinatzen

du. Egiten dutena egiten duten arren, modu oso humanoan irudikatu dituzu.

Literaturan badago premisa bat oso inportantea niretzat: pertsonaiekiko errespetua eta maitasuna. Pertsonaia horiekiko zintzotasun minimo bat edukitzea eta ez erortzea deshumanizatzeko tentazio baldarrean. Idazle bezala zuri dagokizu fina izatea. Eta sakona. Baina ez sakona zuk maite dituzun pertsonaiekin bakarrik, liburuan dauden guztiakin baizik.

Badago liburu bat funtsezkoa niretzat: Jonathan Littellen *Les Bienveillantes* [Gallimard, 2006]. Pentsa zer egiten duen hor jatorri judua duen idazle bateg: sartzen da nazi baten garunean, ez naziari buruz ondo hitz egiteko, baizik eta naziari ertz askotatik begiratzeko. Eta niretzat ariketa literario ikaragarria da, baina humanoa ere bai. Ez dakit nire liburuak horrainoko ariketa egiten duen; gainera uste dut nire kasuan ostia txar handixeagoa dagoela haiekiko, baina badago halako... "mundu guztia da pertsona" esate bat.

“ ”

Badirudi errepresioaren atzaparretan eroritako jendeari dagokion bakarria sufrimendua dela. Baina hori jasanda ere, bizitzen jarraitzeko trikimailuak daude

Literaturaren mundutik aparte sentitu izan zarela esan izan duzu. *Faith*-ek eta aurreko nobelek izan duten oihartzuna kontuan izanda, iruditzen zaizu zure posizioa aldatzen ari dela?

Nik hasiera oso engainagarria izan nuen literaturan: lehen ipuin-bilduma idatzi nuenean eskatu nuen Joseba Jaka beka eta eman egin zidaten. Epaimahaian zeuden Joxe Azurmendi, Koldo Izagirre... jende bat, niretzat zena, ez dakit nola esan, jainkoak bezala. Koldo orduantxe ezagutua nuen, eta niretzat zen *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* [Elkar,

1999] idatzi zuen tipoa, edo *Non dago Basques' Harbour?* [Susa, 1997] poema liburua... Eta saria eman zidatenean esplikazio bat zegoen, zergatik ematen zidaten. Irakurri nituen beraien komentarioak eta pasa nituen hilabete batzuk lebitatzen. Orduan pentsatu nuen literaturaren munduan sartuko nintzela horrela. Zer gertatu zen? Publikatu nuela [*Orain galdera berriak ditut*; Txalaparta, 2004] eta liburuaren inguruan zabaldu zen isiltasun bat ikaragarria, ez zuen ia komentariorik jaso prentsan. Kritika bat egin zion *Deia*-n Josu Lartategik eta hortik aparte ezer ez. Eta nik ikasi nuen zein zen benetan nire tokia. Eta hortik aurrera ba... egia da *Gerra txikia* publikatu nuenean bi edizio saldu nituela, *Faith*-ekin ere bi edizio saldu ditut, eta uste dut irakurleekin harreman ona eduki dudala, baina literatur sistemak bazterrean utzi izan nau beti: sariak, ospakizunak, Literaktum, Gutun Zuria, Etxepare... Uste dut horrek guztiak zeri-kusia daukala politikarekin.

Uste duzu zure posizio politikoak eraginik izan duela?

Bai, uste dut nire posizio politikoak oso deserosoak direla. Eta hori gertatzen zaio Edorta Jimenezi ere; edo Joxe Austin Arrietari ere... badaude idazle batzuk geratu direnak ahanzturaren zoko sakon batean. Ez daukat tesi bat horri buruz, baina Euskal Herrian bizi gara eta hemen politika beti dago ekuazioaren barruan, zure jatorri politikoa ezin duzu kendu. Gero badago jendea oso ondo disimulatzen duena, eta saiatzen da iradokitzen ez daukala posizio politikorik.

Norbait konkretua daukazu buruan?

Ez, ez naiz ari pertsona zehatzei buruz. Uste dut Euskal Herrian mundu guztia saiatzen dela disimulatzen bere posizio politikoa. Eta fin agertzen, ez zaratarik ateratzen. Pertzepzio bat dago: boterearen atzaparrak luzeak direla eta kontuz ibili behar dela. Nik uste pertzepzio hori mundu guztiak daukala. Izu hori. Inork ez dugu esaten horrela, hain garbi, baina uste dut hor dagoela: "Ufa, hau esaten baldin badut edo hemen agertzen baldin banaiz, jarriko didate etiketa eta agur. Orduan, agertu nadin ahalik eta profil baxuenarekin. Adibidez, presoen aldeko zerbait sinatu, baina elkartasun humanista batetik". Alderdi berdinak boterean urte pila bat daramatzen leku batean bizi gara, normala da hori gertatzea. ●

Pentsatzeko leku bat

Jorge Oteizak 1957. urtean erabaki zuen praktika eskultorikoa albo batera uztea eta artistaren egiteko sozialaren eta politikoaren jardunari ekitea, besteak beste, arte-irakaskuntza berritzeko premia eta artearen funtzio sozialaren aitortza aldarrikatuz. *Pentsatzeko leku bat* erakusketak data hori abiapuntutzat hartzen du, eta Bilboko Arte Ederren Fakultatea sortu arteko denbora-tartea aztertzen du. Erakusketak, hortaz, bi hamarkada horietan artearen esperimentazioan eta hezkuntzan izan ziren hainbat mugarri aurkezten dizkigu, giltzarri izan diren artisten eta proiektuen arteko gurutzaketen mapa marraztuz.

 JONE ALAITZ URIARTE  ANTON BILBAO RUIZ

Pentsatzeko leku bat Oteizak *Quousque tandem...!* liburuan (1963) idatzi zuen aldarri kolektiboa da, eta aipu hori erabili dute erakusketako hiru komisarioek –Mikel Onandiak, Sergio Rubirak eta Rocío Robles Tardíok– Euskal Herrian 1957-1979 urteen artean jazo ziren arte-eskola eta -praktika esperimentalen inguruko ikerketa egiteko. Erakusketa hilabete luzeetako irakurketen, elkarrizketen eta tokian-tokiko bisiten emaitza da, eta Gasteizko Artium Museoan du egoitza nagusia. Bertan, hemeretzi ikerketa-kasu aztertzen dira, Euskal Herrikoak eta Espainiako Estatukoak, zeinetan era askotariko dokumentazioa eta artelanak lagun, garai hartako hainbat talde artistiko, elkarte, egitasmu eta proiektu pedagogikoren berri ematen den. Proiektua, halaber, Alzuzako Oteiza Museora ere hedatu da: han, Oteizaren etxea izandakoan, Irungo Zine Klubaren azterketa-kasua jorratu dute artxibo publiko eta pribatuetatik jasotako dokumentazio, artelan eta proiektzioen bitartez.

Ikerketa lan mardula da komisarioek egin dutena, eta bildutako material guztia –gutunak, idazteko makinaz mekanografiatutako manifestuak, egunkari-zatiak, garaiko argazkiak– erakusketa aretora eramateak dituen zailtasunak ondo ebatzita daude, hein handi batean, Xabier Salaberria artista eta diseinatzaileak sortu duen *display*-ari esker. Salaberriak metalezko egitura arin batzuk kokatu ditu aretoan, espazio berez diafanoa partzela ugaritan zatikatzeko, eta keinu sotil eta elegante horrek izaera ematen dio erakusketari. Hainbat ikuspuntutatik lortzen den bista beti da iradokitzailea. Pladurrezko paneletan izendatzen da obra-multzo bakoitzaren izendapeña –Debako Arte Eskola, Iruñeko Topaketak, Biok-Espiral– eta artelanak asko ez badira ere, egoki aukeratuta daudela esango nuke. Dokumentazioa ugaria da, batzuetan nekeza egiten da eskuz edo makinaz idatzitako eskutitz eta notak irakurtzea, baina egindako aurkikuntzen sakontasuna ezin liteke ezbaian jarri.

1960ko hamarkadan Oteizak Arte Garaikideko Euskal Eskolaren proiektua definitu zuen, jada ezagunak diren Gaur (Gipuzkoa), Emen (Bizkaia), Orain (Araba) eta Danok (Nafarroa) taldeak abiatuz. 1966. urtean talde guztiek, nafarrak izan ezik, beren manifestua irakurri zuten, zeinean artisten lan eta ekintza autogestionatuen bidez, abangoardia eta estetika berriei bide egin nahi zieten. Gaur taldeko kide zen José Antonio Sistiaga, eta honek, Esther Ferrer artistarekin batera, Oteizak hauspotu zuen Elorrioko Eskola Esperimentalak sortu zuen 1964. urtean. Eskola hura Fulgor kooperatibako haurrei zuzenduta zegoen eta Célestin Freinet-en sistema pedagogikoa zuen oinarri. Umeen estimulazioa eta sormena garatzea helburu zuen urte betera doi-doi heldu zen eskolak. Urte berdintsuetan, Sistiagak eta Ferrerrek Adierazpen Askeko Lantegia sortu zuten Donostian: haurrei pintura-lantegiak eta eskolak ematen zizkieten sortze-prozesu libreak ahalbidetuz eta haurren sormena aurreiritzi gabe estimulatuz.

Sistiaga eta Ferrerren Lantegira joaten zen haur horietako bat izan zen Rosa Valverde, gerora margolari bilakatu zena eta orain gutxi arte erakusketa izan duena San Telmo Museoan. Valverdek ere Donostiako Egia auzoan hezkuntza-esperientzia bat jarri zuen martxan, kasu honetan, Arno Stern-en pedagogian oinarritua, eta 1992. urtean adierazpen artistikoko tailerra zabaldu zuen. Rafael Ruiz Balerdi eta José Luis Zumeta margolariak ere izan zituzten esperientziak arte irakaskuntzan Donostialdeko hainbat eskolatan. Erakusketan barrena, gustura irakurri dut Mariasun Landak *Anaitasuna* aldizkarian Zumetari egin zion elkarrizketa, bere alderdi pedagogikoaren inguruan; eta gozatu dut Usurbileko etxalde batetik maileguan ekarri dituzten Zumetaren bi mobil koloretsuak



ikusten. Ondoan, Ruiz Balerdik Herrera-ko paisaia urbanoak irudikatzen dituen tamaina txikiko hiru margolan daude.

Margolari gipuzkoarretatik salto egin eta badago beste ikerketa-kasu bat Bizkaiko Estampa Popularra aurkezten duena. Agustín Ibarrolak, María Dapenak eta Dionisio Blancok sortu zuten taldea, diktadura frankista gogor salatu eta Bizkaiko langileriaaren esplotazioaren aurka aritu ziren, horien lan-eskubideen

alde borrokatuz. Nola Dapenak hala Ibarrolak, margolariak izan arren, grabatua erabili zuten langileen eta arrantzaleen inguruko ikonografia sortzeko, medioak eskaintzen zuten azkartasunagatik, ekonomiagatik eta artearen demokratizazioa helburutzat zutelako. Erakusketan, Estampari dagokion txokoa, Ibarrolaren *Obrero arengando* (1964) margolan izugarria ikus daiteke. Taldea 1962. urtean desegin zen taldeko kideak ko-

munistatzat harturik kartzelaratu baitzituzten.

Estampako kide zen Dionisio Blancok Burgoseko prozesuari buruzko margolana egin zuen 1970. urtean, zeinean poli-ziaren basakeria eta torturak oso modu esplizituan salatzen zituen. Margolan hori 1972. urteko Iruñeko Topaketetako *Gaur egungo euskal artea* erakusketan erakusteko asmoa zuen, baina zentsuratu egin zuten. Jada ikoniko bilakatu da margolana eta komisarioek hauxe ekarri dute erakusketara Iruñeko Topaketen inguruko ikerketa-kasua aurkezteko. Topaketa horiek, Luis de Pablo musikariak eta José Luis Alexanco artistak zuzendu zituzten eta Huarte familiaren mezenasgoari esker antolatu ziren, aste-betez, Nafarroako hiriburuan. Jaialdiak nazioarteko izaera zuen eta, nazioarteko, Espainiako Estatuko eta bertako 350 artistatik gora hartu zuten parte, besteak beste, John Cage, Equipo Crónica, Artze anaiak edo Prada-Poole. Hala eta guztiz ere, Topaketa horiek gure artearen historian erreferentziatzeko aipamena diren arren, boikota jaso zuen bai parte hartzaileen aldetik –Blancok zentsura jaso ondoren beste artista askok artelana erakusketatik kentzea edo estaltzea erabaki zuten–, bai kanpoko eragileen aldetik –ETAk jaialdiaren joera burgesa salatu zuen–.

Atentzioa piztu didan beste azterketa-kasua Gipuzkoako Artisten Elkartearena da. Elkartea 1949. urtean sortu bazen ere, Amable Arias margolariak 1962. urtean hartu zuen bertako zuzendaritza, elkartearen dinamika tradizionalak modernizatu eta hezkuntza-praktikak dinamizatzeko asmoz. Egiteko horretan, besteak beste, Sistiaga eta Ferrerren laguntzaz, beste behin ere, Donostiako Udaletxean zuten lokalean hitzaldiak, topaketak, aurkezpenak eta zine-proiektzioak antolatzen hasi ziren. Ariasek elkartearen modernizaziorantz aldaketak egin bazituen ere, sektore tradizionalarekin zituen liskarrak medio, Udalak diru-laguntza kendu zien eta diru hori elkarte gastronomikoetara bideratu zuen. Erabaki horren aurrean protesta egiteko, Ariasek, Zumetak eta Ruiz Balerdik ekintza edo *happening* bat egin zuten, Joxean Artzeren kolaborazioarekin: erakusketa inpresionista moduan iragarrita zegoen ekitaldirako, Artzek ekarri zuen txuleta jan zuten hiruek, isilik, mahai baten bueltan eserita, elkarte gastronomikoetan egiten den lez. 1964. urtea zen. ●



LIBURUA

Ixo!



IRANTZU PASTOR

EZ ERRAN INORI MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

ELKAR, 2022

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Liburuko lehen bost orrialdeak irakurri ditut, 0 kapitulua osatzen duten orrialdeak. Lehenengo parte eta Bigarren parte ataletatik kanpo geratu diren lehen bost orrialdeak. Liburua itxi dut. *Ez erran inori*, irakurri dut berriz azaleko izenburua. Eta sekretu bat kontatu izan balidate bezala sentitu dut pisua gorputzean. Ixo, *ez erran inori*. Horixe da Mikel lehengusuak Lideri sexu abusuak egin ostean esaten dion esaldia. Horixe da abusatzaileak, biktimak eta irakurleak egiten duten paktua: isiltasuna.

Triangelu hori ahots narratiboan dantzak indartzen du gainera. 0 kapitulua hirugarren pertsona orojakileak kontatzen du eta liburu osoan zehar agertuko da behin eta berriz. Panoramika oso eskaintzen digu ahots horrek eta pertsonaiek sentitzen, amesten, egiten, erraten (*ez*) dutena kontatzen digu: "Lideri begiak pizten zaizkio kuku-gordeka jostatzen den bakoitzean".


Liburuaren hasieran beste ahots batekin tartekatzen da aurrekoa. Lehenengo pertsona singularrekin. Kasu horretan Lideren kontakizuna da pisuzkoa. Ahots honek gertutasuna ematen dio errelatoari eta protagonistaren antsietatea, ezinegona, itolarria modu bizian transmititzen du. 36. orrialdean honela dio: "Lehendabiziko benetako krakatekoa geroago izan zen. Hama-bortz bat urte nituenean menturaz".

Hirugarren kapitulutik aurrera agertzen da hirugarren ahots narratiboa, ordura arte agertu ez dena. Protagonistak bizi duen krakateko handi baten ostean bigarren pertsona singularra sartzen da jokaldian. Eta zero kapituluan abusatzaileak, biktimak eta irakurleak egin duten paktua indartzen da horrela. Ahots honek distantzia eta hausnarketa ematen dio testuari. Izan ere, Lidek bere buruari hitz egiten diola dirudi: "Zure ttipit-tako Lide gorroto duzu, hain kurios

izateagatik. Zergatik ez zenion ezetz erran?" (52. orrialdea). Hortaz gain, irakurlea interpelatzeko ere balio du. Eta esango nuke ahots honen erabilerak gordetzen duela kontakizunean azpimarratzen den isiltasunaren unibertsaltasuna ere.

Sexu abusuak eta haren inguruan sortzen den isiltasunak –eta, beraz, erasoen babesak– protagonistarengan uzten duen ondorioa salatzen du liburuak. Mina, zauria eta ezinegona dituen 134 orrialdeetan protagonistaren sentipenetan egingo dugu igeri. Asko poztu nau mugimendu feministak eta #MeToo mugimenduak azken urteetan sortutako diskurtsoa euskal literaturatik ere lantzen ari dela ikustek. Eta bere horretan oso desberdina izanagatik Alaine Agirreren *Kamisoi zuri zetazkoa* ekarri dit gogora.

Maddi Ane Txoperenaren bigarren eleberria da hau. Originala, irakurterraza, aberatsa eta beharrezkoa. ●



MUSIKA

Bikaintasuna soiltasunean



Verdiren *Rigoletto* opera. **Lekua:** Kursaal Auditorioa. **Data:** maiatzaren 14a. Excelentia Vocal Ensemble. Santa Cecilia Orkestra Klasikoa. **Zuzendaria:** Gregorz Nowak. **Bakarlariak:** Letitia Vitelaru (sopranoa), Luis Gomes (tenorea), Gyula Nagy (baritonoa), Francisco Santiago (baxua), Danilela Vladimirova (mezzoa). **Taularatzea:** Alejandro Contreras. Argazkian 2019ko emanaldi bat, beste bakarlari batzuekin.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Nekatu gabe mila aldiz goza daitekeen obra horietako bat da *Rigoletto*. Verdiren opera gailenetakoa da, pasarte oso ezagunak eta edertasun handikoak eta ikusleak erakartzen dituen argumetua dituena. Bere alaba ustezko mardirikazio batetik etsi-etsian babesten saiatzen den konkordunaren istorioak indarrean dirau gaur egun, nahiz eta dramatismo gehiegizkoa eta istorioaren zati batzuk korapilotsuak izan.

Kursaalean ikusi eta entzun ahal izan genuen bertsioa sinplea izan zen, antzeztua, baina agertoki ez oso handi baten berezko mugekin, eta, gainera, atzealdean zegoen orkestrarekin partekatua. Egia esan, *mise en scène* elementu eszenografiko gutxi batzuk ziren, ekintzaren euskarri gisa. Baina ikuskizunaren pisu osoa ahots-interpretazio

zioek eta abeslarien adierazkortasunak hartzen zuten, antzerkiaren ikuspegitik ezer gutxi egin baitzitekeen hain espazio txikian.

Nolanahi ere, esandakotik ezin da ondorioztatu ikuskizunak ez zuela merezi edo pobrea zela. Guztiz kontrakoa. Publikoa istorioan harrapatuta geratu zen, elementu distortsionatzailetan—ez zeuden, egia esan—erregaratu gabe, eta, gainera, liluratuta geratu zen entzun ahal izan genituen ahots bikainenekin.

Londresen bizi den Luis Gomes tenore portugaldarrak, Duca di Mantovaren rolean, bere agudo garbi eta seguruak erakutsi zituen, eta une batzuetan ahots sudurkaria agertu arren edertasun eta irmotasun handiko fraseatzeko izan zuen. *Questa o quella* arian esprezio handiz eta erraztasunez aritu zen,

eta hain famatua den *La donna é mobile* freskotasunez iritsi zitzaigun.

Hungariako Gyula Nagy baritonoak, Rigolettoren paperean, bere ahots ahalmena eta pertsonaia modu sinesgarrian interpretatzeko gaitasuna erakutsi zituen. Aktore handia suertatu zen.

Baina ikuskizunean gehien nabarmendu zen izarra Letitia Vitelaru soprano errumaniarra izan zen, zailentzarik gabe. Gilda pertsonaiaren interpretazio zoragarria eskaini zuen, xalotasunez eta ezertasunez bete. Eta ahotsaren eremuan liluratu zuen publikoa, erregistro guztietan duen erraztasunarekin eta, batez ere, eskaini zituen kristalezko agudoekin.

Bai Excelentia Vocal Ensemble, bai Santa Zezilia Orkestra Klasikoa puntu-puntu egon ziren une oro, Gregorz Nowaken zuzendaritzapean. ●



Historiaren korridore ilunak

IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Alhondegiko erakusketa aretoak beste leku bat dirudi. Hormak han eta hemen altxatu dituzte espazioa guztiz transformatuz, moketa beltzez jantzi eta eraikuntzarako erabiltzen diren argiontziekin baino ez dute argiztatu. Historian zehar bidaia egin behar dugu argiuneak baino itzalak dituen figura historiko bat oinarri hartuta: Katalina Erauso. Antonio, hobeto esanda, izen horrekin ehortzi baitzuten Mexikon 1650ean.

Cabello/Carceller bikoteak aspaldiko gogoa zuen figura honen inguruan lan egiteko. Pertsonaia liluragarria da, guztiz. Trans gisa har dezakegun lehen figura historikoa da eta bere bizitza –bere autobiografiari esker ezagutzen duguna, behintzat– milaka pasadizoz osatuta dago: moja eta gerlaria izan zen; Maputxeen hiltzailea; gizon gisa janzteko eskubidea zuen Aita Santuaren bulda bati esker; andrezaile eta iskanbila sortzaile

amorratua izan zen. Berea da munstrokeriatik urrun egin zen trans pertsona baten lehen erretratua.

Erakusketak historiaren eta trans errealtatearen itzalekin jolasten du, osoa ez den eta izan ezin den diskurtso bat eraikitzeko. Zinemaren ikono maskulinoak irudikatzen dituzten emakumeen erretratuekin bete dute gela bat, lesbianengan gaitzetsia izan den izaera maskulinoa goraiatzeko. Judith Butlerren testu baten inguruan dantzan jarri dute jendea, eta gorputz ez-binarioak instituzio akademikoetan desfilatzen jarri dituzte, espazio horietan arrakalak sortzeko asmoarekin.

Erakusketa ikusita, mendeetan zehar bidaiatu duen espektro honen inguruan sortzen zaizkigun galderak hamaika dira: lehen trans gizona izan zela esan genezake? Gizon trans heterosexuala? Emakume trabesti eta lesbiana? Itzalez beteriko pertsonaia inspirazio iturri izan

'AHOTS BAT ERAUSORENTZAT' ERAKUSKETA

NOIZ: martxoak 10 - irailak 25

NON: Alhondegia (Bilbo)



daiteke? Galdera horiek, betiere, gaur egungo begiradarekin egiten ditugu, historiaren korridore ilunak gure begiekin ikustera tematuta gaudelako. Pertsonaia bera ere epaitu dugu: Nahi zuelako jokatu zuen horrela, bere benetako izaera hura zelako? Edo bizirauteko teknika bat izan zen? Maskulinitatea konstruktua bat da, beti izan da, eta guk galdera hauekin ezbaian jarri dugu berriro ere.

Katalina/Antonio Erausok garaiko gizarte patriarkalean onarpena lortu zuen, garaiko maskulinitatearekin –indarkeria kolonialaz jantzia– guztiz bat egin eta boterearen zerbitzura jarri zuelako. Kontra izango bazen, historia berdina izango zen? Segur aski ez, baina berriro ere usteekin jolasean gabiltza. Berriro ere historiaren korridore ilunak gaur egungo argi gidariekin igaro ditugu. Mamuak inbokatuta ditugu eta gure ikuskeraren arabera eurekin hizketan ari gara gure hizkuntza ulertuko dutelakoan. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA PAU LOZANOK, "STOP JOCS OLÍMPICS" PLATAFORMAKO KIDEAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.


	8		1	5	3				
9	5		7	6					
7	3	4	2		8		6	5	
	2	8		5		9	7		
	4	7		8					
6		3		7			1	8	
3	1					5			
4	7	5	3		9	6	8	1	
8	6	9			7	2			

ERRAZA

	9		1	8			6	2	
							1		
3	1	8				5			
		2			9	8			
	4			1					
			3			6	5		
				6			2		
1						8	3	6	
6	2	7		3	8	4			

ZAILA

1. Zailtasun handiz.
2. Edari sendagarri.
3. Gai.
4. Moztu.
5. Gazitutako haragi.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				N	E	K	O	I	
2	S				I	D	E	A	
3	D	E				U	T	U	
4	B	A	R				I	L	
5	X	A	R	I				I	
6	A	L	F	O	N				

EBAZPENAK

8	6	9	5	1	4	7	2	3	
4	7	5	3	2	9	6	8	1	
3	1	2	8	6	7	4	5	9	
6	9	3	4	7	2	5	1	8	
5	4	7	9	8	1	2	3	6	
1	2	8	6	5	3	9	7	4	
7	3	4	2	9	8	1	6	5	
9	5	1	7	3	6	8	4	2	
2	8	6	1	4	5	3	9	7	

ZAILA

PUZLEA: "JOKAK INDEPENDENTISMOA DESAKTIBATZEKO MEKANISMOA DIRA, URREZKO AUKERA ESTATUARENATZAT, KIROLAREN AITZAKIAN NAZIONALISMO ESPAINIARRA BULTZATZEKO."
5X5: 1. NEKEZ, 2. EDABE, 3. KAPAZ, 4. EBAKI, 5. ZEZIN.
HIZKI BERAK: 1. BARNEKOI, 2. SARBIDEA 3. DEARRUT, 4. BARRABIL, 5. XARIBARI, 6. ALFONBRA.

Olatz Aramendi Olaizola

URRUÑARRA ETA KITO



EMAGIN GASNA ZALEA

Urruñarrak autentikoak dira. Ez dago beste gisa esaterik. Urruñakoak dira ihauteri onenak, Urruñakoak dira bestarik onenak, urruñarrak dira lagunik onenak... Segi eta segi daiteke. "Gure artean gara, beti biziki ongi pasatzen da, biziki polita da", baieztatzen du ahoan bilorik gabe Aramendik. Urruña ezagutzen duenak badaki haize berezi batek jotzen duela bertan. Pentsa, emagin lana egitera joateaz gain, gasna saltzera ere joaten da emagina erietxera. Bertako lankideak dira bikotekidearekin egiten duen gasnaren bezero handi eta fidelenak. Haurrak ala gasna, sorkuntza da bere pasioa.

"Paziente euskaldunekin euskaraz mintzatzearekin konplizitatea berehala sortzen da"

26 urte besterik ez ditu eta gaztetasunaren ilusioarekin bizi du bere lana. Emagina da Baionako erietxe publikoan. "Berant heldu nintzen lehen egunean eta erran zidaten hala izanik kontratu mugagabea irabazia nuela, beste ainitzi ere gertatua baitzitzaien", aitortu digu irri ttipi batekin. Zorionez, Lapurdin, Zuberoan eta Behe Nafarroan uste baino ohikoagoa bilakatzen ari da euskaldunak topatzea osasungintzan.

AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ **IRANTZU PASTOR**

Zer dela eta emagin?

Lizeoan ikasle garela, lanbide bat aukeratu behar izaten dugu aste pare bateko formakuntza egin ahal izateko ondoren. Ez nekien zer egin baina argi nuen laguntza arloan nahi nuela jardun. Norbere gustuen inguruko bilana egin genuen orientatzailearekin, eta mediku, emagin, erizain... halakoak atera zitzaizkidan. Garaian, misterio handia zen niretzako emagin funtzioa eta horren bueltako guztia. Misterio horrek intriga sorturik, emagintzari heldu nion. Frantziaren kasuan, gainera, medikuntzako lehen urtea egin behar izaten da; konkurtsoa pasa ondoren eta dena gainditu ostean irekitzen dira ondorengo ikasketarako ateak. Emagintzaren kasuan, beste lau urte ziren garaian. Egunean uste dut sei direla.

Gogoan al duzu lehen lan eguna?

Bai, eta ez dut sekula ahantziko! Berant heldu nintzen lehen egunean, eta erran zidaten hala izanik kontra-

tu mugagabea irabazia nuela, beste ainitzi ere gertatua baitzitzaien. Hiru urte daramatzat jada, eta hasierako ilusio berdinarekin segitzen dut. Ez baitago egun bakar bat ere beste baten berdina denik. Erditze gelan egoten naiz lanean, une batek ez du datorrenarekin zerikusirik. Lasaitasunetik larrialdi egoerara pasa gaitzke azkar batean, edota alderantziz. Lasai egon gaitzke, eta bat-batean sei emazte erditze bidean jarri. Intentsitate handiko lana da. Nik hori maite dut. Goizean iritsi eta zer gertatuko den ez jakitea. Hamabi orduko lan txandak ditugu eta dena ematen dut.

Hiru urte daramatzazu, horietatik bi pandemia egoeran.

Bai, esan daiteke ez dudala kasik "normaltasunik" edo protokolo gabeko garairik ezagutu. Azken hila-beteak luzeak eta zailak izan dira; lanbide gehienetan bezala, guk ere egokitu behar izan dugu. Fase ez-



“Hasiberria nintzenez erditze naturalak oso bortitzak egiten zitzaizkidan, baina ikasi nuen eta ederra da zinez”.

berdinak izan ditugu, noski. Hasieran izua zen nagusi, galduak sentitzen ginen, protokoloak betetzea oso zaila zen. Baionan gainera ez zegoen hain egoera larria COVID-19a zela eta. 2021. urteko abenduan, aldiz, egoera aldatu eta larritzen hasi ginen hemen ere.

Horrez gainera, pandemia aurretik emaginok grebak egiten ere hasiak ginen, gure lan baldintzak hobetzeko. Soldata igoera bat lortu dugu, baina hori ez da dena, are gutxiago osasunaz ari garenean. Baionan, adibidez, sei erditze gela daude. Egunez hiru emagin egon ohi dira eta gauez bi. Askoz egoera okerragoetan ari dira Frantziako hiri handietan. Dena dela, bururaino goaz eta grebak eginez segituko dugu, behar duguna lortu arte.

Geroz eta euskaldun gehiago zarete Baionako erietxe publikoan!

Hala da bai, asko gara, geroz eta gehiago. Niretzat ere, euskaldun gisa, lankideekin euskaraz egitea plazer hutsa da. Emazte euskaldunak erditzera heldu direnean eta izen euskalduna dudala ikusten du-

tenean, begirada berezi batez so egiten didate. Eta orduan ni neu hasten naiz euskaraz mintzatzen. Hor, zerbait berezia sortzen da. Intimitate gehiago lortzen dela esango nuke. Euskaraz mintzatzearekin soilik hurbiltasuna, konfiantza eta konplizitatea berehala sortzen dira. Frantsesez ari garenean, ezberdina da. Ez dut esan nahi okerragoa denik, edo eroso sentitzen ez naizenik, baina aipaturiko hori dena, berantago heldu da.

Lantalde gaztea da Baionakoa gainera, eta euskaldunak egoteaz gain, beste anitz euskaraz ikasten ari dira.

Zer sentitzen duzu zuk emazte bat erditzen ari denean?

Oso zaila da azaltzen. Kudeaketa ere ez da erraza. Hasiberria nintzenez izutu egiten nintzen. Ez nekien zer eta nola esan edo egin. Erditze naturalak oso bortitzak egiten zitzaizkidan, baina ikasi nuen eta ederra da zinez. Zer behar duen galdetzen dugu. Behatu egiten dut, eta horren arabera jardun. Egunero ikasten dut. Emazte bakoitza mundu bat

da. Batzuek presentzia eskatzen dute eta beste batzuek bakarrik egon nahi izaten dute haien munduan.

Horrez gainera, erditze naturala desio dutenak oso prestatuta heldu ohi direla esango nuke. Bidelagun izateko prest.

Indarkeria obstetrikoa asko aipatzen da egun. Nola bizi duzu gaia?

Entzun dut horren inguruan zerbait, baina ez naiz horrekin identifikatua sentitzen. Ez dut inor ezagutzen erditzea hala bizi izan duenik gurean. Iparraldean emagin liberalek lan handia egiten dute emaztea erditze unerako prestatuz. Kasik asistentzia pertsonalizatua da. Erditze gelan, aldiz, entzun egiten dugu, eta pertsonaren eskaria betetzeko gaude, egoeraren arabera beti ere. Jendea informatua heldu ohi da eta ongi pasatzen da. Sortu orduko amari ematen diogu ttikia eta gu baztertu egiten gara. Une horiek magikoak dira eta etxe batean ez dira egunero bizitzen! Isilik egoten ere ikasten dugu. ●

Galiza non ten rei

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

tzuli da Juan Carlos eta Galizia aukeratu behar izan du erakusteko berak jarraituko duela egiten borboiaren puntan jartzen zaiona. Diotenez, diskrezioa eskatua zion Espainiako Errege Etxeak, ez zaiolako *show* handirik komeni, monarkia krisi existentzial bat bizitzen ari baita aspaldi honetan, gutxi gorabehera 40 urterekin *crossfit* egiten hasten diren gizaseme horiek bezala, baina gihar gutxiagorekin. Hain gihar gutxiarekin, ezen zazpi urte baitira dagoeneko Espainiako Ikerketa Soziologikorako Zentroak (CIS, gaztelaniazko sigletan) ez diela herriarrei eskatzen estatuburuaren baloraziorik egiteko. Galdetu zuten azkeneko aldietan, emaitzek Froilanen notak ziruditen: 10etik 4,9; 3,7; 3,7; eta 4,3.

Penko sorta horrek Feliprest kezkatuko du akaso, baina ez dio lorik kentzen Juankarbiziri: sosei erreparatu gabe, emeritua jet pribatu batean iritsi da Abu Dhabitik –kanpetxanoa bai, baina ez abioi normalak hartzeko bezainbeste– eta ikusten da *Like a Rolling Stone* bizitzeak oso kaskatuta utzi duela, baina oraindik parranda gustatzen zaiola ere bai. Ume batek bezala pasa du bere txalupan eta trofeoren bat ere lortu omen du. Itzulera laburbiltzen duen keinu bat egotekotan, 2004an Gasteizen oparitu ziguna izan daiteke: oraingoan erdiko atzamarra masta bezala altxatzeko premiarik ez du izan, baina jarrera hori da, mundu guztiari izorra dadila esatea. Harrotuta baitago, bela guztiak haize alde Sanxenxora iritsi denean lekaioek, jopuek eta basailuek jotako txaloeekin.

Belaunikatuen zerrenda luzea izan da. Bisitak “Galizia mapan jarriko duela” adierazi du herriko alkateak, ustelkeriagatik ospa egin zuen monarkaren bisita justifikatuz gure zoko honetan edozein ebento justifikatzeko erabili



diren espresio berarekin –zer pentsatua ematen du–. *La Voz de Galicia*-ren kronikan berriz, detaile hauek: Borboiak Sanxenxoko klub nautikoaren poloa zeramala soinean, publikoa agurtzera hurbildu zela eta bertako gastronomiaz galdetu zuela, “zehazki Herbongo piperrez”. Prentsa probintzianoak batzuetan lotsaren Geiger kontagailuak leherrarazten ditu.

Berragerpen triunfal horren aurrean, hasia nintzen desesperatzen; eta madarikatzen Agosti Zahoren garaitik belaunaldiz belaunaldi erreproduzitzen diren *erregue-erreguiñac eta heien partidario tontoac edo ambiciosac*. Eskerrak BNGko eta Galiza Novako kide batzuek bestelako harrera ere egin dioten, artikulua honen izenburuan jarri dugun esloganarekin. Eskerrak (bis) bestelako periodikoak ere badituztela Galizian: Nòs egunkarian detaile

mamitsuak Galizian Borboiarekin elkartzen den kuadrillaz, adibidez Josep Cusí emerituaren lagun zaharra bertan izan dela. 1972an ezagutu zuten elkar, ehizan ari zirela, glups, Francisco Francorekin.

Espektakuluak komentatzeko direnez, adierazpen pila asuntuz prentsan. Tartean EAJrena. Andoni Ortuzarrek eskatu du argitzeko nondik atera duen Juan Carlos I.enak dirua. Baina onena da, “monarkiaren errepublikanizazioa” ere eskatu duela. Oximorona? Ez ba: oso helburu noblea iruditzen zait niri behintzat. Baldin eta 1789ko moda frantsesean inspiratuz egiten bada, noski. Susmoa daukat ordea –susmoa besterik ez–, erbiaren prezioan *gatto-pardo* bat saltzeko modu bat besterik ez dela. Errepublikanismo horrekin, laster dugu Briboia hemengo porturen batean. ●

UDAKO TOPAKETAK 2022

Uztailak 4, 5 eta 6, Donostian



hh
hik hasi



Ikastaroak:

Lehen Hezkuntza eraldatzen | Argiaren pedagogia | Neurosiaren prebentzioa bizitzaren hasieran | Pintura, buztina eta mugimenduaren bidezko espresioa | Haurtzaroan bidelagun Montessoriren ikuspegitik | Jolastokia, eskolako espazioa? | Mugak jarri autoestimua zainduz | Natura eskura | Hausnarketa lantzen elkarriketa kooperatiboaren bidez | Heziketa eta astrologia psikologikoa: iraultza pedagogiko bat | Heriotzaren lanketa | Dislexia | Entrenamendu mentalaz eta ametsak aztertuz, zoriontsu! | Euskara bereganatzea Haur Hezkuntzan | Irakasle berritsuak Lehen Hezkuntzan | Nerabeei hizkuntza-sozializazioan laguntzearen erronka | Sortuz eta sortuz, kontatu | Eskola kirola gogoeta kolektiborako tresna | Sormenean hezi, kulturari bizi | Irakaslearen lanketa pertsonala | Zaintza guneak: norbera zainduz, bestea zaindu | Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan | Zirimiri: oinarrizko yoga teknikak ikasgelatan ongizatea lantzeko | Neuroludokinestesia | Antzerki teknikak: hezkuntzarako tresna pedagogikoa | Familiaren eta eskolaren arteko elkarlana ikuspegi sistemikotik | Zuzendaritzarako formakuntza sistemikoa | Bizitzaren eta bizitzarako pedagogia sistemikoa | Gamifikatu... eta irabazi! | Matematika eskuetan, goazen jolastera! | Fisikaren eta Kimikaren ikaskuntzan IKD13 eredu.

www.hikhasi.eus



EKAINAREN 4AN PILOTA PLAZAN

ZIBURUKO 3. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

EGITARAUA

- | | | | |
|--|--|-------|---|
| 10:00 | IDEKITZE EKITALDIA. | 15:15 | UMORERKOE SAIOA
ONE PANTZO MAN SO <i>Pantzo Irigaray</i> |
| 10:15 | ZUBIBURU <i>Janbattit Dirassar eta Amaiur Epher idazleen arteko solasaldia.</i> | 15:45 | AURKEZPENA
· ARRANOTXU <i>ZaldiEroa (Xabiroi)</i>
· SASI ARTEAN ELGETA <i>Koldo Izagirre, Garluk eta Dani Fano (Xabiroi)</i> |
| 10:30 | AMALURRAK PAUSA BEHAR DU <i>Maddi Zubeldia eta Bernadette Luroren haurrendako ikusgarria.</i> | 16:30 | AURKEZPENA
AUSTERLITZ <i>(Igela)</i>
<i>WG Sebald · Itzulpena: Idoia Santamaria Urkaregi</i> |
| 11:30 | AURKEZPENA
ESAN GABE DOA <i>(Txalaparta)</i>
<i>Asel Luzarraga</i> | 17:15 | AURKEZPENA
SENDABELARREK DAKITENA <i>(Argia)</i>
<i>Garbiñe Larrea</i> |
| 12:00 | AURKEZPENA
GEPARDO JAPONIARRAK <i>(Susa)</i>
<i>Lizar Begoña</i> | 18:00 | AURKEZPENA
TXOMIN, AURRERA BOLIE! <i>(Gara)</i>
<i>Jokin Urain</i> |
| 12:30 | ZIRRIBORROKA <i>(Bertso-marrazki dema)</i>
<i>Axi eta ZaldiEroa VS. Miren Artetxe eta Igor Elortza</i> | 19:00 | AZOKAREN HESTEA |
| 13.00 - 15.00 AZOKA HETSIA
<i>13.30tan NI BANJA folk taldea BOGAN eta 14:00tan ATALAIAn.</i> | | 20:00 | KONTZERTUA ADAR taldea |

ANTOLATZAILEAK



PARTAIDEAK



BABESLEAK

